

**EMAKUMEEN KONTRAKO
DISKRIMINAZIO ERA
GUZTIAK EZABATZEKO
KONBENTZIOA ETA
GOMENDIOAK**



EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

GIDALIBURUA

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

7

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

VITORIA - GASTEIZ 1998

EMAKUMEEN
KONTRAKO DISKRIMINAZIO
ERA GUZTIAK EZABATZEKO
KONBENTZIOA ETA
GOMENDIOAK

IZENBURUA:

"Emakumeen kontrako diskriminazio era guztiak ezabatzeko konbentzioa eta gomendioak"

EGILEA:

EMAKUNDE/Emakumearen Euskal Erakundea. Manuel Iradier kalea, 36. 01005 Vitoria-Gasteiz

**MAKETATZAILEA ETA
KOORDINATZAILEA:**

Ana Rincón

DATA:

Martxoa, 1998

ALE ZENBAKIA:

1.000

DESKRIBATZAILEAK:

Diskriminazioa, berdintasunerako politikak, Nazioarteko Hitzarmenak, gomendioak

IRUDI DISEINUA:

Ana Badiola eta Isabel Madinabeitia

ILUSTRATZAILEA:

Iñigo Ordozgoiti

FOTOMEKANIKA:

Rali, S.A. Particular de Costa 8-10. Bilbao

INPRIMAKETA:

Grafo, S.A. Cervantes Etorbidea, 51. 48.970 Basauri. Bilbao

ISBN:

84-87595-48-0

LEGE GORDAILUA:

BI-580-98

AURKIBIDEA



AURKEZPENA 7

SARRERA 11

EMAKUMEEN KONTRAKO DISKRIMINAZIO ERA GUZTIAK EZABATZEKO
KONBENTZIOA 17

ESTATU KIDEEN ADITASUNPEAN JARRITAKO GAIAK
GOMENDIO OROKORRAK ETA IRUZKINAK 35

EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNAREN KULTURARANTZ
HEZKUNTZAREN BITARTEZ. EKINTZARAKO PRINTZIOAK 77



AURKEZPENA

Sexuen arteko berdintasuna oinarritzko printzipio bezala aitortua izan da Nazioarteko, Europako eta Estatuetakoa arau juridiko guztietan. Hala ere, gauza bat da berdintasunerako eskubidea izatea eta beste bat eskubide hori errealitatean gauzatzea, eta horretarako ezinbestekoa da botere publikoek esku har dezaten emakumeen eta gizonen arteko berdintasun egiazkoa eta eraginkorra lortu ahal izateko.

Alde horretatik, emakumearen kontrako diskriminazio mota guztiak kentzearen alde ONUk 1979an egin zuen biltzarrean beste urrats bat gehiago eman zen emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioak aurrera egin zezan, eta huraxe izan zen, hain zuzen ere, mundu osorako balioko zuen lehenbiziko tresna juridikoa, ekintza positiboak ez zirela diskriminatzaileak argi eta garbi aldarrikatu zuena. Eta sexuen arteko berdintasun printzipioa indargabetzen ez dutenez gero, argi dago ez direla diskriminatzaileak, beti ere denbora baterako baldin badira eta arlo guztietako berdintasun-ezak, politika, gizarte, ekonomi eta kulturaren arlokoak, zuzentzeko balio badute.

Xedapen hori zuzenean aplikatu daiteke berretsi egin duten Estatu guztietan, eta interpretazio iturri bezala erabili beharko da tratatu eta aukera berdintasunarekin lotzen diren proposamen guztietan. Ekintza positiborako neurriak berdintasuna lortzeko premiazko kasu guztietan jarri beharko dira.

Estatuek, hura berrestean, hitz eman dute emakumeen kontrako nolanahiko diskriminazioak deusezteko neurriak jarriko dituztela eta, Batzarraren xedapenek bere eragina izan dezaten, hartu diren neurrien berri emango dietela Nazio Batuei, bai eta arlo honetan izandako aurrerapausuen berri ere. Arau hau Espainiako Estatuak 1983ko abenduaren 16an berretsi zuen.


Gure Erkidegoaren eremuan, Euskadiko Autonomi Estatutuaren 9.2 artikuluan ezarri zen euskal botere publikoen eginkizuna dela emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna zinezkoa eta egiazkoa izan dadin, diratekeen oztupoak erazteko eta aldeko kondizioei eragiteko neurriak hartzea.

Era berean, Euskadiko Autonomi Elkarteko Emakumeentzako Ekintza Positiboen II. Planak, Eusko Jaurlaritzak 1995eko abenduaren 29an onetsi zuenak, 1979an ONUk egin zuen Batzarrean eta europar araudian oinarrituta, ekintza positiboa berretsi du, emaitzetan berdintasuna ezartzeko estrategia bezala, horren bidez, denboraldi baterako bederen gizartearen izaten diren praktiken —batzuetan itxuraz neutralak— eta genero sistema sozialaren haritik sortzen diren diskriminazioak zuzentzeko edo horiei aurre egiteko. Ez dugu ahaztu behar generoaren sistemak, gizartearen egituraketa kontrolatzeko tresna inportantea den aldetik, emakumeen eta gizonen portaera, rolak eta balore sistemak markatzen dituela, eta aldi berean, eragozpena dela aukera berdintasunerako eta guztien garapenerako. Ekintza positiboak, hain zuzen ere, oztopo horiek deusezteko eta neutralizatzeko balio du.

Horiengatik guztiengatik, interes handikoa da ONUk 1979an emakumearen kontrako diskriminazio mota guztiak deusezteari buruz egin zuen Batzarraren berri ematea, haren edukia jakinarazi eta praktikan jartzea errazago izan dadin.



Txaro Arteaga Ansa
EMAKUNDE/Emakumearen
Euskal Erakundeko zuzendaria



SARRERA

Urrats handi bat eman zen 1979ko abenduaren 18an emakumeentzako eskubide berdintasunaren helbururantz, Batzar Orokorrak Emakumearen aurkako Diskriminazio Era guztiak Ezabatzeko Konbentzioa onartu zuenean. Konbentzio honek, bere 30 artikuluetan, aldarrikatu egiten ditu, lege aldetik bete beharreko eran, mundu guztiak onartutako printzipioak eta emakumeek leku guztietan eskubide berdintasuna edukitzea lortzeko neurriak. Bere onarpenak amaiera eman zion egina zen kontsulta-lan bati, lantalde batzuen barruan, Emakumearen Gizarte eta Lege Egoerari buruzko Batzordean eta Batzar Orokorrean bost urtekoan egina zen kontsulta-lanari.

Konbentzio orokor honek eskubide berdintasuna eskatzen du emakumearentzat, bere egoera zibila gora-behera, esparru guztietan: esparru politiko, ekonomiko, sozial, kultural eta zibilean. Nazioek diskriminazioa debekatzeko legeak aldarrikatzea eskatzen du; gizon eta emakumearen arteko berdintasuna bizkortzeko aldibaterako neurri bereziak gomendatzen ditu, bai eta diskriminazioa iraunarazten duten gizarte-kulturazko ereduak aldatzeko xedapenak ere.

Beste neurri batzuek emakumearentzako eskubide berdintasuna xedatzen dute bizitza politiko eta publikoan; hezkuntzara eta ikasketa programa berberetara iristeko aukera berdintasuna; diskriminaziorik eza enpleguan eta ordainketan, eta lan segurtasunaren bermeak ezkontza edo amatasuna gertatuz gero. Konbentzioak nabarmenarazi egiten du gizonari eta emakumeari etxe barruko bizitzan dagokien erantzukizun berdintasuna. Halaber, famili obligazioak lan erantzukizunekin eta bizitza publikoan parte hartzearekin konbinatzeko eskaini behar diren gizarte zerbitzuak ere -bereziki umeen zaintzari dagozkionak- azpimarratzen ditu.

Konbentzioaren beste artikulua batzuetan, emakumeari mediku-laguntzako zerbitzuak diskriminaziorik gabe eskaintzea eskatzen da, are familiaren plangintzari dagozkionak ere, eta gizonaren gaitasun juridiko berdina, Estatuak onartu behar dutelarik emakumearen gaitasun juridikoa mugatzera jo dezan edozein kontratari edo beste edozein tresna pribaturi «baliogabe iritziko zaiola». Arreta berezia emango zaie baserrialdeko emakumearen arazoei.

Konbentzioak Estatuak onarturiko obligazioak nazioarte mailan begiratzeko mekanismoak ezartzen ditu, Konbentzioa berretsi edo berari atxiki bazaizkio. Emakumearen aurkako Diskriminazioa Ezabatzeko Batzordeak, beren eginkizunetan beren buruen izenean soilik aritu eta Estatu kideek aukeratuak diren 23 adituk osaturik dagoenak, haren aplikazioan egiten diren aurrerapenak aztertzen ditu.

Konbentzioa, 1980ko martxoaren 1etik izenpetzeko irekia, 1981eko irailaren 3an sartu zen indarrean. 1995eko otsailera arte, 141 herri onartua zuten bere xedapenen betebeharra, berrespen edo atxikimendu bidez. Honako hauek dira herriok:

Albania	Bahamak
Alemania	Bangladesh
Angola	Barbados
Antigua eta Barbuda	Belarrus
Argentina	Belgika
Armenia	Belize
Australia	Benin
Austria	Bhutan

Bolivia	India
Bosnia-Hertzegovina	Indonesia
Brasil	Irak
Britania Haundi eta	Irlanda
Ipar Irlandako	Islandia
Erresuma Batua	Israel
Bulgaria	Italia
Burkina Faso	Jamaika
Burundi	Japonia
Cabo Verde	Jemen
Costa Rica	Jordania
Danimarka	Jugoslavia
Dominika	Kamerun
Dominikar Errepublika	Kanada
Egipto	Kanbodia
Ekuador	Kenia
Ekuatore Ginea	Kirgizistan
El Salvador	Kolonbia
Errumania	Komoreak
Errusiar Federazioa	Kongo
Ertafrikar Errepublika	Koreako Errepublika
Eslovakia	Kroazia
Eslovenia	Kuba
Espainia	Kuwait
Estonia	Laosko Herri-Erepublika
Etiopia	Demokratikoa
Filipinak	Letonia
Finlandia	Liberia
Frantzia	Libia
Gabon	Lituania
Gambia	Luxemburg
Gana	Madagaskar
Georgia	Malawi
Ginea	Maldivak
Ginea Bissau	Mali
Grenada	Malta
Grezia	Maroko
Guatemala	Maurizio
Haiti	Mazedoniako Jugoslaviar
Herbehereak	Errepublika-ohia
Honduras	Mexiko
Hungaria	Moldovako Errepublika

Mongolia
Namibia
Nepal
Niger
Nikaragua
Norvegia
Panama
Papua Ginea Berria
Paraguai
Peru
Polonia
Portugal
Ruanda
Saint Kitts eta Nevis
Saint Vincent eta
Grenadinak
Samoa
Santa Luzia
Senegal
Seychelleak
Sierra Leona
Sri Lanka
Suedia

Surinam
Tadjikistan
Tanzaniako Errepublika
Batua
Thailandia
Togo
Trinidad eta Tobago
Tunisia
Turkia
Txad
Txekiar Errepublika
Txile
Txinako Herri-Erepublika
Uganda
Ukrania
Uruguai
Venezuela
Vietnam
Zaire
Zania
Zeelanda Berria
Zimbabwe
Zipre

Konbentzioaren testu osoa hurrengo orrialdeotan ageri da.

E MAKUMEEN
KONTRAKO DISKRIMINAZIO
ERA GUZTIAK EZABATZEKO
KONBENTZIOA

Konbentzio honetako Estatu Kideek

Aintzat hartuta Nazio Batuen Sortze-Agiriak gizakiaren funtsezko eskubide, gizakiaren duintasun eta balio eta gizon eta emakumearen eskubide berdintasunarekiko fedea birbaiezen duela,

Aintzat hartuta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak diskriminaziorik ezaren printzipioa birbaieztu eta gizaki guztiak libre eta duintasun eta eskubideetan berdin jaiotzen direla eta pertsona orok Adierazpen horretan aldarrikatzen diren eskubide eta askatasun guztiak, inolako bereizketarik gabe, eta, ondorioz, sexu bereizketarik gabe, eska ditzakeela aldarrikatzen duela,

Aintzat hartuta Giza Eskubideei buruzko Nazioarteko Itunetako Estatu Kideek gizonari eta emakumeari eskubide politiko, sozial, kultural, zibil eta ekonomikoen gozamen berdintasuna bermatu behar dietela,

Kontuan izanik, gizon eta emakumearen arteko eskubide berdintasuna bultzatzeko xedez, Nazio Batuen eta erakunde espezializatuen babespean hitzartutako nazioarteko konbentzioak,

Kontuan izanik halaber Nazio Batuek eta erakunde espezializatuek, gizon eta emakumearen arteko eskubide berdintasuna bultzatzeko xedez, onartutako erabaki, adierazpen eta gomendioak,

Kezkaturik, ordea, tresna ezberdin hauek gora-behera, emakumeek diskriminazio garrantzitsuak jasaten jarraitzen dutela ikusterakoan,

Gogoraraziz emakumearen kontrako diskriminazioak eskubide berdintasunaren eta giza duintasunaren errespetua hausten dituela, emakumeak bere herriko politika, gizarte, ekonomi eta kultur bizitzan, gizonaren baldintzetan euren, esku hartzea galarazten duela, gizartearen eta familiaren ongizatea gehitzeko eragozpena dela eta emakumearen ahalbiak, bere herriari eta gizateriari zerbitzu egitekoak, oztopatzen dituela,

Kezkaturik, pobrezia egoeretan, emakumeak elikadura, osasun, irakaskuntza, gaikuntza eta enplegu aukeretara nahiz beste beharrian batzuk betetzera iristeko duen aukera oso urria delako,

Sinistuta, berdinkidetasunean eta justizian oinarritutako nazioarteko ekonomi antolaketa berria ezartzeak gizon eta emakumearen arteko berdintasuna bultzatzeko nabarmenki lagunduko duela,

Azpimarratuz bereizkeria (apartheid), arrazakeria, arrazako diskriminazio, atzerritar kolonialismo, neokolonialismo, eraso, okupazio eta dominazio era guztiak nahiz Estatuaren barne arazoetan eskusartzea ezabatzea ezinbestekoa dela gizonaren eta emakumearen eskubideen bete-beteko gozamena izateko,

Baieztaatzaz nazioarteko bake eta segurtasuna indartzea, nazioarteko tentsioa arintzea, Estatu guztien arteko lankidetzaren euren ekonomi eta gizarte sistemak gora-behera, nazioarteko kontrol hertsia eta egiazkoaren menpeko desarme orokor eta osoa eta, zehazki, desarme nuklearra, justizia, berdintasuna eta elkarren onura herrien arteko harremanetan eta dominazio kolonial eta atzerritarraren menpeko herrien burujabetasun aske eta independentziaren eskubidea erabiltzea, eta nazioen subiranotasunaren eta lurralde-osotasunaren errespetua, gizarte aurrerapen eta garapenaren bultzagarri eta, ondorioz, gizonaren eta emakumearen arteko bete-beteko berdintasuna lortzeko lagungarri izango direla,

Sinistuta emakumearen partaidetzarik handiena, alor guztietan eta gizonaren baldintza berdinetan, ezinbestekoa dela herri baten garapen betea eta osoa, munduko ongizatea eta bakearen helburua lortzeko,

Gogoan izanik emakumeak familiaren ongizaterako eta gizartearen garapenerako egiten duen ekarpen handia, orain arte guztiz aitorturik ez dagoena, amatasunaren garrantzi soziala eta gurasoek familian eta seme-alaben hezkuntzan betetzen duten eginkizuna, eta jabeturik gaudela emakumeak ugalketan duen eginkizuna ez dela diskriminaziorako arrazoi izan behar, baizik eta umeen hezkuntzak gizonen eta emakumeen erantzunkidetasuna, eta gizarte osoarena, behar duela,

Aitorturik gizon eta emakumearen arteko bete-beteko berdintasuna lortzeko aldatu egin behar dela gizonak nahiz emakumeak gizartean eta familian duten ohizko eginkizuna,

Erabakita emakumearen kontrako diskriminazioaren ezabapenari buruzko Adierazpenean aldarrikatzen diren printzipioak aplikatzera eta, horretarako, diskriminazio hau bere era eta agerpide guztietan ezabatzeko behar izan daitezen neurriak hartzea,

Hurrengoak erabaki dute:

I. ZATIA

1. artikulua

Konbentzio honi dagokionean, «emakumearen kontrako diskriminazioa» esapideak, sexuan oinarritutako edozein bereizketa, bazterketa edo murrizketa adierazten du, hots, emakumeari, bere egoera zibila gora-behera eta gizon eta emakumearen berdintasuna oinarri, esparru politiko, ekonomiko, sozial, kultural eta zibilean edo beste edozeinetan, giza eskubideen eta funtsezko askatasunen aitormena, gozamen- na edo erabilera gutxitu edo ezeztatzeke helburuz edo emaitzaz egindakoa.

2. artikulua

Estatu Kideek gaitzetsi egiten dituzte emakumearen kontrako diskriminazio era guztiak, emakumearen kontrako diskriminazioa ezabatzeke politika bat, bide egokietatik eta luza- tu gabe, jarraitzea erabaki eta, horretarako, gain hartzen dute honako hau:

a) Gizon eta emakumearen arteko berdintasunaren printzipioa finkatzea, oraindik egin ez badute, beren nazio konstituzioetan eta beste edozein legeria egokitan, eta, lege bidez edo bestelako bide egokietatik, printzipio honen gau- zatze praktikoa segurtatzea;

b) Emakumearen kontrako edozein diskriminazio debe- katzen duten neurri egokiak hartzea, legegintzazkoak eta bestelakoak, dagozkien zehapenekin;

c) Emakumearen eskubideen babes juridikoa ezartzea, gizonenekiko berdintasunean oinarriturik, eta nazioko auzi- tegien edo eskudunen bitartez eta bestelako erakunde publi- koen bitartez, emakumearen benetako babesa bermatzea edozein diskriminazio egintzaren aurka;

d) Emakumearen aurkako inolako diskriminazio egin- tzarik edo praktikarik ez egitea eta agentari eta erakunde pu- blikoek betebeharrak honi atxikiz jardun dezaten arduratzea;

e) Edozein pertsona, erakunde edo enpresak emaku- mearen kontra egindako diskriminazioa ezabatzeke beha- rrezko neurriak hartzea;

f) Emakumearen kontrako diskriminazioa egin dezaten lege, araudi, erabilera eta praktikak aldatu edo indargabetze- ko beharrezko neurriak hartzea, are legegintzazkoak ere;

g) Emakumearen kontrako diskriminazioa egin dezaten nazioko zigor-xedapen guztiak indargabetzea.

3. artikulua

Estatu Kideek beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte, are legeintzazkoak ere, esparru guztietan, eta bereziki esparru politiko, sozial, ekonomiko eta kulturaletan, emakumearen garapen eta aurrerapen osoa segurtatzeko, giza eskubideen eta funtsezko askatasunen erabilera eta gozamina gizonaren baldintza berdintasunez bermatzeko xedez.

4. artikulua

1. Estatu Kideek, gizonaren eta emakumearen arteko benetako berdintasuna bizkortzeko, aldibaterako neurri bereziak hartzeari ez zaio diskriminazio iritziko Konbentzio honetan definituriko eran, baina ez du inola ere, bere ondorioz, arau ezberdin edo bereziei eusterik ekarriko; neurri hauek amaitu egingo dira aukera eta tratu berdintasunaren helburuak lortutakoan.

2. Estatu Kideek amatasuna babesteko neurri bereziak, are Konbentzio honetan biltzen direnak, hartzeari ez zaio diskriminazio iritziko.

5. artikulua

Estatu Kideek honako hauetarako neurri egoki guztiak hartuko dituzte:

a) Gizon eta emakumeen portaera eredu soziokulturalak aldatzekoak, sexuetako baten gutxiagotasun edo gehiagotasunaren ideian nahiz gizonei eta emakumeei egotzen zaizkien eginkizun estereotipuetan oinarritzen diren ohizko aurrititzi eta praktikak ezabatzeko helburuz;

b) Famili hezkuntzan amatasunaren gizarte funtzioa behar bezala ulertzea eta gizonak zein emakumeek seme-alaben hezkuntza eta garapenari dagokionean duten erantzunkidetasuna onartzea bermatzekoak, seme-alaben interesa kasu guztietan ardura behinena izango delako ustean.

6. artikulua

Estatu Kideek beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte, are legeintzazkoak ere, emakumeen tratu eta emakumearen prostituzioaren ustiapen era guztiak ezabatzeko.

II. ZATIA

7. artikulua

Estatu Kideek beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte, herriko bizitza politiko eta publikoan, emakumearen aurkako diskriminazioa ezabatzeko eta, zehazki, honako hauetarako eskubidea bermatuko diete gizonetikiko baldintza berdintasunean:

- a) Hauteskunde eta referendum publiko guztietan boto ematekoa eta organismo guztietarako hautagai izatekoa, hauetako kideak hauteskunde publikoen gai direnean;
- b) Gobernuen politiken formulazio eta burutzapenean parte hartzekoa eta kargu publikoak eduki eta gobernu-maila guztietako funtzio publiko guztietan aritzekoa;
- c) Herriko bizitza publiko eta politikoan aritzen diren gobernuez kanpoko erakunde eta elkarteetan parte hartzekoa.

8. artikulua

Estatu Kideek neurri egoki guztiak hartuko dituzte emakumeari, gizonarekiko baldintza berdintasunean eta inolako diskriminaziorik gabe, bere gobernua nazioarteko mailan ordezkatzeko eta nazioarteko erakundeen zereginen esku hartzea bermatzeko.

9. artikulua

1. Estatu Kideek gizonen eskubideak eurak emango dizkiete emakumeei beren naziotasuna hartu, aldatu edo kontserbatzeko. Bermatu egingo dute, zehazki, atzerritar batekin ezkondata egotearen edo, senar-emazte barruan, senarrak bere naziotasuna aldatzearen ondorioz, emaztea automatikoki bere naziotasuna aldatu, aberrigabe bihurtu edo ezkontidearen naziotasuna hartzera beharturik ez egotea.
2. Estatu Kideek gizonaren eskubideak eurak emango dizkiete emakumeari seme-alaben naziotasunari dagokionean.

III. ZATIA

10. artikulua

Estatu Kideek neurri egoki guztiak hartuko dituzte emakumearen kontrako diskriminazioa ezabatzeko, hezkuntzaren esparruan gizonaren eskubide berberak segurtatzeko xedez eta, zehazki, gizonen eta emakumeen arteko berdintasun baldintzetan, honako hauek segurtatzeko:

a) Orientazio baldintza berberak karrera eta lanbide gaikuntzaren gaietan, ikasketetara iristea eta diplomak lortzea, kategoria guztietako irakaskuntza erakundeetan, base-rrialdeetan nahiz hirialdeetan; berdintasun hau segurtatu beharko da eskolaurreko irakaskuntzan, orokorrean, teknikoan eta lanbidezkoan, goi hezkuntza teknikoa barne, eta bai lanbide gaikuntza mota guztietan ere;

b) Ikasketa programa berberetara eta azterketa berberetara iristeko aukera, lanbide maila bereko irakasleak eta kalitate bereko eskola lokalak eta hornidurak;

c) Gizonaren eta emakumearen eginkizunei buruzko kontzeptu estereotipatu guztiak ezabatzea, irakaskuntzako maila eta era guztietan, hezkuntza nahasia eta helburu hau lortzeko lagungarri izan daitezen bestelako hezkuntza motak bultzatuz eta, zehazki, eskola liburuak eta programak aldatuz eta irakaskuntza metodoak egokituz;

d) Ikasketak egiteko bekak eta bestelako dirulaguntzak lortzeko aukera berdintasuna;

e) Hezkuntza osagarriaren programetara iristeko aukera berdintasuna, alfabetatze funtzionalaren eta helduentzakoaren programetara barne, gizonaren eta emakumearen arteko ezagupen-diferentzia ahalbait lastarren gutxitzeari begira;

f) Emakumeen ikasketa-utzieraren tasa gutxitzea eta ikasketak garaiz aurretik utzi dituzten andre gazte eta helduentzako programak antolatzea;

g) Kiroletan eta gorputz hezkuntzan era ekinkorrean esku hartzeko aukera berdintasuna;

h) Familiaren osasuna eta ongizatea segurtatzeko laguntzen duen informazio berezira iristea, familiaren plan-gintzari buruzko informazio eta aholkua barne.

11. artikulua

1. Estatu Kideek beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte enpleguaren esparruan emakumearen kontrako diskriminazioa ezabatzeko, gizon eta emakumeen arteko berdintasun baldintzetan eskubide berberak eta, zehazki, honako hauek segurtatzeko xedez:

a) Lanerako eskubidea, gizaki ororen eskubide alienaezina den aldetik;

b) Enplegu aukera berberetarako eskubidea, enpleguetan hautespen irizpide berberak aplikatzekoa barne;

c) Lanbidea eta enplegua askatasunez aukeratzeko eskubidea, enpleguan igotzeko, egonkortasuna edukitzeko eta prestazio eta gainerako zerbitzu baldintza guztietarako eskubidea, eta lanbide hezkuntza eta birtrebakuntzara iristeko eskubidea, ikasketa, goi lanbide-prestakuntza eta aldizkako trebakuntzarakoa barne;

d) Ordainketa eta prestazio berdinetarako eta tratu berdintasunerako eskubidea balio bereko lanari dagokionean, bai eta tratu berdintasunerako eskubidea lanaren kalitatearen ebaluazioari dagokionean ere;

e) Gizarte segurantzarako eskubidea, zehazki, jubilazio, langabezia, gaixotasun, elbarritasun, zahartzaro edo lan egiteko bestelako ezgaitasunen kasuetan, bai eta ordaindutako oporretarako eskubidea ere;

f) Osasunaren babeserako eta lan baldintzetako segurantzarako eskubidea, ugalketa funtzioaren zaintzarakoa barne.

2. Ezkontza edo amatasuna dela-eta, emakumearen kontrako diskriminazioa galarazteko eta lan egiteko duen eskubidearen eragingarritasuna bermatzeko, Estatu Kideek beharrezko neurriak hartuko dituzte:

a) Haurdunaldi edo amatasun-lizentziaren ziozko kanporaketa eta, kanporaketetan, egoera zibilaren ziozko diskriminazioa debekatzeko, zehapen zigorpean;

b) Amatasun-lizentzia ezartzeko, soldata ordainduarekin edo prestazio sozial parekagarriekin, aurretiko enplegua, aintzinasuna edo onura sozialak galdu gabe;

c) Laguntzazko zerbitzu sozialak bultzatzeko, gurasoek familiarekiko erantzukizunak lanaren erantzukizunekin eta bizitza publikoan parte hartzearekin konbinatu ahal ditzaten, bereziki haurren zaintzarako zerbitzu-sare baten sorkuntza eta garapenaren bitartez;

d) Emakumeari haurdunaldian arreta berezia eskaintzeko, berarentzat kaltegarri gerta daitezkeela frogaturik dauden lan motetan.

3. Artikulu honetan biltzen diren gaiei buruzko babeslegeria aztertua izango da aldian-aldian zientzi eta teknologi ezagutzen argitan eta berrikusi, indargabetu edo zabaldua izango da, dagokionaren arabera.

12. artikulua

1. Estatu Kideek neurri egoki guztiak hartuko dituzte mediku-laguntzaren esparruan emakumearen kontrako diskriminazioa ezabatzeko, gizon eta emakumeen arteko berdintasun baldintzetan, mediku-laguntzako zerbitzuetara iristea bermatzeko xedez, are familiaren plangintzari dagozkionetara ere.

2. Aurreko 1. lerroaldean xedatzen denaren kaltetan gabe, Estatu Kideek haurdunaldi, erditzaldi eta erditondoko aldiarekiko zerbitzu egokiak bermatuko dizkiote emakumeari, doako zerbitzuak eskainiz behar direnean, eta elikadura egokia segurtatuko diote haurdunaldian eta edoskitzaroan.

13. artikulua

Estatu kideek beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte ekonomi eta gizarte bizitzaren beste esparru batzuetan emakumearen kontrako diskriminazioa ezabatzeko, gizon eta emakumeen arteko berdintasun baldintzetan, eskubide berberak bermatzeko xedez, zehazki:

- a) Famili prestazioetarako eskubidea;
- b) Banka maileguak, hipotekak eta bestelako finantza kredituak lortzeko eskubidea;
- c) Jolas jarduketetan, kiroleetan eta kultur bizitzaren alderdi guztietan parte hartzeko eskubidea.

14. artikulua

1. Estatu Kideek kontuan izango dituzte baserrialdeko emakumeak aurre egin behar dien arazo bereziak eta bere familiaren biziraupenean betetzen duen eginkizun garrantzitsua, ekonomiaren sektore ez-monetarretan egiten duen lana barne, eta beharrezko neurriak hartuko dituzte Konbentzio honetako xedapenak baserrialdeetako emakumeari aplikatzen zaizkiola bermatzeko.

2. Estatu Kideek beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte baserrialdeetan emakumearen kontrako diskriminazioa ezabatzeko, landa-garapenean eta onuretan, gizon eta emakumeen arteko berdintasun baldintzetan, parte hartzen duela segurtatzeko xedez, eta, zehazki, honako hauetarako eskubidea bermatuko diote:

- a) Maila guztietako garapen planen gertaketan eta buruzapenean parte hartzekoa;
- b) Mediku-laguntzazko zerbitzu egokietara, are familien plangintzari buruzko informazio, aholku eta zerbitzuetara ere, iristekoa;
- c) Gizarte segurantzaren programen onura zuzenean jasotzekoa;
- d) Hezkuntza eta prestakuntza mota guztiak, akademiakoak eta ez-akademikoak, hartzekoa, alfabetatze funtzionalari dagozkionak barne, eta komunitateko eta dibulgaziozko zerbitzu guztien onurak, besteak beste, jasotzekoa ere, bere gaitasun teknikoa gehitzeko xedez;
- e) Elkarlaguntza taldeak eta kooperatibak antolatzekoa, norbere konturako edo besteren konturako enpleguaren birtartez ekonomi aukeretara iristeko berdintasuna izateko xedez;
- f) Komunitatearen jarduera guztietan parte hartzekoa;
- g) Nekazaritza arloko kreditu eta maileguetara, merkaturatze zerbitzuetara eta teknologia egokietara iristekoa, eta nekazal erreforma eta berrezarrera planetan tratatu berdina jasotzekoa;
- h) Bizitza baldintza egokiak edukitzekoa, bereziki etxebizitzaren, osasun-zerbitzuen, elektrizitate eta ur horniduraren, garraio eta komunikabideen esparruetan.

IV. ZATIA

15. artikulua

1. Estatu Kideek gizonarekiko berdintasuna aitortuko diote emakumeari legearen aurrean.
2. Estatu Kideek gizonaren gaitasun juridiko berbera aitortuko diote emakumeari gai zibiletan, eta gaitasun hori erabiltzeko aukera berberak ere. Zehazki, kontratuak izenpeztzeko eta ondasunak administratzeko eskubide berberak aitortuko dizkiote emakumeari, eta trataera berdina emango diote justiziako gorteetako eta auzitegietaiko prozedura-aldi guztietan.
3. Emakumearen gaitasun juridikoa mugatzen duen edozein kontratu edo eragin juridikodun beste edozein tresna pribaturi baliogabe iritziko zaiola onartzen dute Estatu Kideek.

4. Estatu Kideek eskubide berberak aitortuko dizkiete gizonari eta emakumeari, pertsonen askatasunez ibiltzeko eskubideari eta euren egoitza eta bizilekua aukeratzeko askatasunari buruzko legeriari dagokionean.

16. artikulua

1. Estatu Kideek neurri egoki guztiak hartuko dituzte emakumearen kontrako diskriminazioa ezabatzeko ezkontza eta famili harremanei dagozkien arazo guztietan eta, zehazki, honako hauek segurtatuko dituzte gizon eta emakumeen arteko berdintasun baldintzetan:

- a) Ezkontzeko eskubide berbera;
- b) Ezkontidea askatasunez aukeratzeko eta bere erabakimen aske eta bere baimen osoaz soilik ezkontzeko eskubide berbera;
- c) Eskubide eta erantzukizun berberak ezkontza bitartean eta ezkontza deseginez gero;
- d) Eskubide berberak guraso diren aldetik, beren egoera zibila dena dela, seme-alabekin zerikusia duten gaietan; seme-alaben interesak ardurarik behinena izango dira kasu guztietan;
- e) Seme-alaben kopurua eta jaiotzen arteko aldia askatasunez eta axolaz erabakitzekeo eskubide berberak, bai eta eskubide horiek erabili ahal izateko informazio, hezkuntza eta baliabideetara iristekoak ere;
- f) Eskubide eta erantzukizun berberak seme-alaben tutoretza, kuratela, zaintza eta adopzioari dagokionez, edo antzerako erakundeei dagokienez, kontzeptu hauek nazioko legerian agertzen diren guztietan; seme-alaben interesak ardurarik behinena izango dira kasu guztietan;
- g) Norberaren eskubide berberak senarra eta emaztea den aldetik, besteak beste, abizena, lanbidea eta ogibidea aukeratzeko eskubidea;

h) Ezkontide bakoitzarentzako eskubide berberak ondaren jabetza, erosketa, kudeaketa, administrazio, gozamen eta erabilerari dagokionez, dohainez nahiz kostubidez.

2. Umeen ezkontitzek eta ezkontzak ez dute inolako eragin juridikorik izango eta beharrezko neurri guztiak hartuko dira, are legegintzazkoak ere, ezkontzeko gutxienezko adina finkatzeko eta ezkontza erregistro ofizial batean inskribatzea nahitaezkoa izan dadin.

V. ZATIA

17. artikulua

1. Konbentzio honen aplikazioan egindako aurrerape-nak aztertzeko, Emakumearen kontrako Diskriminazioa Ezabatze Batzorde bat ezarriko da (aurrerantzean Batzor-dea deitua). Batzorde hori, Konbentzioa indarrean sartzeko unean, prestigio moral haundiko eta Konbentzioak hartzen duen arloan gaitasun haundiko hamazortzi adituk osaturik egongo da eta, hogeita hamabostgarren Estatu Kideak be-rrespensa edo atxikimendua eman ondoren, hogeita hiru adi-tuk osaturik. Adituak Estatu Kideek beren nazionalen artetik aukeratuak izango dira, eta nor bere izenean arituko dira be-ren eginkizunetan; kontuan hartuko dira geografi banaketa berdinkide bat, zibilizazio era ezberdinen ordezkapena eta sistema juridiko nagusiak.

2. Batzordeko kideak Estatu Kideek izendatutako per-sonen zerrenda batetik hautetsiko dira bozketa sekretu bi-dez. Estatu Kide bakoitzak pertsona bat izendatu ahal izango du bere nazionalen artetik.

3. Lehen hauteskundera Konbentzio hau indarrean sar-tu eta sei hilabete igarotakoan egingo da. Hauteskunde ba-koitzaren data baino gutxienez hiru hilabete lehenago, Nazio Batuen Idazkari Nagusiak gutun bat bidaliko die Estatu Kideei beren hautagai zerrendak bi hilabeteko epean aurkez ditzaten deia eginez. Idazkari Nagusiak era honetan izenda-tutako pertsona guztien zerrenda alfabetikoa prestatuko du, izendatu dituzten Estatu Kideak adierazita, eta Estatuko Kideei helaraziko die.

4. Idazkari Nagusiak deitu eta Nazio Batuen Egoitzan egingo den bilera batean hautetsiko dira Batzordeko kideak. Bilera honetan, bertako quoruma Estatu Kideen bi herenek osatzen dutela, Batzorderako hautetsitzat emango dira botu-rik gehien eta Estatu Kide presente eta botu-emaileen ordez-karien botuen erabateko gehiengo atera dezaten hauta-gaiak.

5. Batzordeko kideak lau urtetarako hautetsiko dira. Alabaina, lehen hauteskundera hautetsitako kideetarik be-deratziren agintaldia bi urtebeteren buruan amaituko da; le-hen hauteskundera egin eta berehalaxe, Batzordeko Lehen-dakariak zozketa bidez hautatuko ditu bederatzi kide horien izenak.

6. Batzordeko bost kide gehigarrien hauteskundera arti-kulu honetako 2, 3 eta 4. lerroaldeetan xedatzen denari atxi-

kiz egingo da, hogeita hamabostgarren Estatu Kideak Konbentzioaren berrespena edo berarekiko atxikimendua eman ondoren. Aldi honetan hautetsitako kide gehigarriarik biren agintaldia bi urtebeteren buruan amaituko da, bi kide hauek Batzordeko Lehendakariak zozketa bidez izendatuko dituela.

7. Ezustean gerta daitezen kargu hutsak betetzeko, Batzordeko kide-eginkizunak utzi dituen adituaren Estatu Kideak beste aditu bat izendatuko du bere nazionalen artetik, Batzordearen onarpenaren zain geratuko dena.

8. Batzordeko kideek, Batzar Orokorrak onarpena eman ondoren, Nazio Batuen fondoetatik jasoko dituzte lanordainak Batzarrak erabaki dezan modu eta baldintzetan, Batzordearen eginkizunen garrantzia kontuan hartuta.

9. Nazio Batuen Idazkari Nagusiak Batzordeak Konbentzio honen arabera dituen eginkizunak eraginkortasunez betetzeko beharrezko pertsonala eta zerbitzuak zuzkituko ditu.

18. artikulua

1. Estatu Kideek behartu egiten dute beren burua, Konbentzio honetako xedapenak betetzeko eta alde honetatik egindako aurrerapenari buruz hartuak dituzten legegintzazko, auzibidezko, administraziozko edo bestelako neurriei buruzko txosten bat Nazio Batuen Idazkari Nagusiari aurkeztera, Batzordeak azter dezan:

- a) Dagokion Estatuarentzat Konbentzioa indarrean sartu eta urtebeteko epean, eta
- b) Aurrerantzean, gutxienez lau urtebetez behin eta, gainera, Batzordeak eska dezan bakoitzean.

2. Txostenetan adierazi ahal izango dira Konbentzio honetan ezartzen diren beharkizunen betetze-neurriari daragioten faktore eta zailtasunak.

19. artikulua

- 1. Batzordeak bere araudia onartuko du.
- 2. Batzordeak bere Mahaia hautatuko du bi urtebeteko eperako.

20. artikulua

1. Batzordea urtero bilduko da normalean, Konbentzio honen 18. artikuluaaren arabera aurkeztuak zaizkion txostenak aztertzeko. Batzordearen bileren iraunaldia Konbentzio honetako Estatu Kideen bilkura batean finkatuko da eta Batzar Orokorraren onarpenaren menpe jarriko.

2. Batzordearen bilerak normalean egingo dira Nazio Batuen Egoitzan edo Batzordeak erabaki dezan beste edozein leku egokitan.

21. artikulua

1. Batzordeak, Ekonomi eta Gizarte Kontseiluaren birtartez, bere jardueren berri emango dio urtero Nazio Batuen Batzar Orokorrari eta izaera orokorreko iradokizun eta gomendioak egin ahal izango ditu, Estatu Kideek helarazitako txosten eta datuen azterketan oinarrituak. Izaera orokorreko iradokizun eta gomendio hauek Batzordearen txostenean sartuko dira, egonez gero, Estatu Kideen oharpenekin batera.

2. Idazkari Nagusiak Batzordearen txostenak helaraziko dizkio Emakumearen Lege eta Gizarte Egoerari buruzko Batzordeari, honen informaziorako.

22. artikulua

Erakunde espezializatuak euren jardueren eremuari dagozkion Konbentzio honetako xedapenen aplikazioaren azterketan ordezkatu egoteko eskubidea izango dute. Batzordeak erakunde espezializatuak eskatu ahal izango die Konbentzioak euren jardueren eremuari dagozkion arloetan duen aplikazioari buruzko txostenak aurkeztea.

VI. ZATIA

23. artikulua

Konbentzio honetan xedatzen den ezerk ere ez du eraginik izango gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzera hobeto eraman eta hurrengo osatzen duen ezein xedapenetan:

- a) Estatu Kide baten legeria, edo
- b) Estatu horietan indarrean dagoen beste edozein nazioarteko konbentzio, itun edo hitzarmen.

24. artikulua

Estatu Kideek, Konbentzio honetan aitorturiko eskubideak bete-betean burutzeko, nazio mailan beharrezko izan daitezzen neurri guztiak hartzeko konpromezua hartzen dute.

25. artikulua

1. Konbentzio hau Estatu guztiek izenpetzeko irekita egongo da.
2. Nazio Batuen Idazkari Nagusia izendatzen da Konbentzio honen gordailuzain.
3. Konbentzio hau berrespenari loturik dago. Berres-teko tresnak Nazio Batuen Idazkari Nagusiaren eskutan gordailatuko dira.
4. Konbentzio hau Estatu guztien atxikimendura irekita dago. Atxikimendua Nazio Batuen Idazkari Nagusiaren eskutan atxikimendu tresna bat gordailatuz egingo da.

26. artikulua

1. Estatu Kideetako edozeinek Konbentzio honen berrikuspena eskatu ahal izango du noiznahi, Nazio Batuen Idazkari Nagusiari zuzendutako jakinarazpen idatziaren bitartez.
2. Nazio Batuen Batzar Orokorrak erabakiko ditu eskabide horri buruz, hala badagozkio, hartu behar izan daitezzen neurriak.

27. artikulua

1. Konbentzio hau indarrean sartuko da Nazio Batuen Idazkari Nagusiaren eskutan hogeigarren berrespen edo atxikimendu tresna gordailatu dadin egunetik hasi eta hogeita hamargarren egunean.
2. Hogeigarren berrespen edo atxikimendu tresna gordailatua izan ondoren Konbentzioa berretsi edo berari atxiki dakion Estatu bakoitzarentzat, Konbentzioa indarrean sartuko da Estatu horrek bere berrespen edo atxikimendu tresna gordailatu duen egunetik hasi eta hogeita hamargarren egunean.

28. artikulua

1. Nazio Batuen Idazkari Nagusiak jaso eta jakinarazi egingo die Estatu guztiei, berrespen edo atxikimendua egiteko unean Estatuak adierazitako erreserben testua.

2. Ez da onartuko Konbentzio honen xede eta helburuarekin bateraezina izan dadin erreserbarik.

3. Edozein erreserba kendu ahal izango da edozein unetan Nazio Batuen Idazkari Nagusiari zuzendutako berarizko jakinarazpen baten bitartez, eta honek horren berri eman go die Estatu guztiei. Jakinarazpen honek eragina izango du jaso dadin unean.

29. artikulua

1. Bi Estatu Kideren edo gehiagoren artean, Konbentzio honen interpretazio edo aplikazioari buruz, sortu eta negoziazio bidez konpon ez dadin edozein eztabaida tartekaritzaren menpe jarriko da haietako batek eskatuta. Sei hilabeteke epean, tartekaritza eskearen aurkezpen egunetik kontatzen hasita, aldeak tartekaritza horren erari buruz ados jarzen ez badira, aldeetako edozeinek Nazioarteko Justizia Gortearen erabakipean jarri ahal izango du eztabaida, Gortearen Estatutuari atxikiz aurkeztutako eskabide baten bitartez.

2. Estatu Kide orok bere burua artikuluko honen 1. lerroaldeak dioenari lotzera beharturik ez dagoela aldarrikatu ahal izango du Konbentzio hau izenpetu edo berretsi edo berri atxikitzeko unean. Gainerako Estatu Kideak ez dira lerroalde honek beharturik egongo erreserba hori egin duen ezein Estatu Kideren aurrean.

3. Artikulu honetako 2. lerroaldean aurrikusten den erreserba adierazia duen edozein Estatu Kidek atzera kendu ahal izango du noiznahi, Nazio Batuen Idazkari Nagusiari horren berri emanez.

30. artikulua

Konbentzio hau, bere testuak, arabiera, txinera, espainera, frantses, ingeles eta errusieraz idatziak, orobat kautoak direla, Nazio Batuen Idazkari Nagusiaren eskutan gordailatuko da.

HORREN LEKUKOTZA EMANEZ, azpian ageri direnek, behar bezala baimenduta, sinatu egiten dute Konbentzio hau.

ESTATU KIDEEN
ADITASUNPEAN
JARRITAKO GAIAK

GOMENDIO OROKORRAK ETA IRUZKINAK*

* 21. artikulua 1. lerroaldean ezartzen denaren arabera: «Batzordeak... izaera orokorreko iradokizun eta gomendioak egin ahal izango ditu, Estatu Kideek helarazitako txosten eta datuen azterketan oinarrituak»

1. Gomendio orokorra (bosgarren bilkuraldia, 1986)

Konbentzioaren 18. artikuluaaren arabera aurkeztutako lehen txostenek aurkezpen egunera arte dagoen egoera bildu beharko dute. Aurrerantzean, lehen txostena aurkeztu behar zen dataren ondorengo lau urtez behin gutxienez aurkeztu beharko dira txostenak, eta Konbentzioa bete-betean aplikatzeko aurkituak diren eragozpenak eta eragozpen hauek gainditzeko hartuak diren neurriak bildu beharko dituzte.

2. Gomendio orokorra (seigarren bilkuraldia, 1987)

Emakumearen kontrako Diskriminazioa Ezabatzeko Batzordeak,

Kontuan izanik, Estatu Kideen hasierako txosten batzuek, Konbentzioaren 18. artikuluaaren arabera aurkeztutakoek, dagokion Estatu Kidean baliagarri zegoen informazioa Orientabideei atxikiz behar bezala adierazten ez baitzuten, Batzordeak bere eginkizunean zailtasunak aurkituak zituela,

Gomendatzen du:

a) Estatu Kideek, Konbentzioaren 18. artikuluaaren arabera txostenak prestatzerakoan, 1983ko abuztuan onartutako Orientabide Orokorrei (CEDAW/C/7) jarrai diezaiotela txostenen era, eduki eta datei dagokienean;

b) Estatu Kideek 1986an onartutako gomendio orokorrari jarrai diezaiotela, honakoaren arabera:

«Konbentzioaren 18. artikuluaaren arabera aurkeztutako lehen txostenek aurkezpen egunera arte dagoen egoera bildu beharko dute. Aurrerantzean, lehen txostena aurkeztu behar zen dataren ondorengo lau urtez behin gutxienez aurkeztu beharko dira txostenak, eta Konbentzioa bete-betean aplikatzeko aurkituak diren eragozpenak eta eragozpen hauek gainditzeko hartuak diren neurriak bildu beharko dituzte.»

c) Estatu Kide baten txostena osa dezan informazio gehigarria Idazkaritzari bidaltzea, txosten hori aztertua izan behar den bilkuraldia hasi baino gutxienez hiru hilabete lehenago.

3. Gomendio orokorra (seigarren bilkuraldia, 1987)

Emakumearen kontrako Diskriminazioa Ezabatzeko Batzordeak,

Aintzat hartuta Emakumearen kontrako Diskriminazioa Ezabatzeko Batzordeak, 1983az geroztik, Estatu Kideen 34 txosten aztertu dituela,

Aintzat hartuta gainera, txostenak garapen-maila ezberdinetako Estatuetatik etorriak diren arren, gradu ezberdinez emakumeari buruzko aurriritzizko ideiak agertzen duten alderdiak dituztela, sexuan oinarritutako diskriminazioa irauten eta Konbentzioaren 5. artikulua aplikazioa eragozten duten faktore soziokulturalei zor zaizkienak,

Eske egiten die Estatu Kide guztiei, emakumearen gizarte berdintasunaren printzipioa bete-betean aplikatzea eragozten duten aurriritziak eta praktikak ezabatzeko lagungarri izan daitezen hezkuntza eta zabalkuntza programak benetan har ditzaten.

4. Gomendio orokorra (seigarren bilkuraldia, 1987)

Emakumearen kontrako Diskriminazioa Ezabatzeko Batzordeak,

Aztertuak dituela, bere bilkuraldietan, Estatu Kideen txostenak,

Bere kezka agertzen duela Konbentzioaren xede eta helburuarekin, antza, bateraezinak ziren erreserba kopuru handiarekiko,

Begi onez hartzen du Estatu Kideen erabakia, hots, New Yorken, 1988an, egingo den hurrengo bilkuraldian erreserbak aztertzeko erabakia, eta, horretarako, Estatu Kide interesatu guztiei iradokitzen die erreserba hauek, atzera kentzeko asmoz, berrikus ditzatela.

5. Gomendio orokorra (zazpigarren bilkuraldia, 1988)

Aldi baterako neurriak

Emakumearen kontrako Diskriminazioa Ezabatzeko Batzordeak,

Ohartuta, Estatu Kideen txostenek, sarrera oharpenek eta erantzunek agerian jartzen dutenez, lege diskriminatzaileak ezeztatu edo aldatzeko dagokionean aurrerapen nabarmenak lortu badira ere, Konbentzioa bete-betean aplikatzeko xedapenak hartu eta gizon eta emakumearen arteko berdintasuna benetan sustatzeko neurriak sartu beharrak iraun badirauela,

6. Gomendio orokorra (zazpigarren bilkuraldia, 1988) Mekanismo nazional eraginkorra eta publizitatea

Gogoraraziz Konbentzioaren 4.1 artikulua,
Gomendatzen du Eskatu Kideek aldibaterako neurri bereziak areago erabil ditzatela, esaterako, ekintza positiboa, lehenetasunezko trataera edo kuota-sistemak, eta hori emakumearen integrazioa, hezkuntzan, ekonomian, politikan eta enpleguan alegia, aurrera eginarazteko.

Emakumearen kontrako Diskriminazioa Ezabatzeko Batzordeak,

Aztertuak dituela Konbentzioko Estatu Kideen txostenak, emakumearen kontrako diskriminazio era guztiak ezabatzeari buruzkoak,

Ohartuta Nazio Batuen Batzar Orokorraren 1987ko azaroaren 30eko 42/60 erabakia,

Gomendatzen die Estatu Kideei:

1. Mekanismo, erakunde edo prozedura nazional eraginkorrak ezarri edo indar ditzatela, gobernu-maila altuan eta baliabide egokiak, behar adinak konpromezu eta agintea erabiliz, hurrengoetarako:

- a) Gobernuaren politika guztiek emakumeari ekarriko dizkioten ondorioei buruz aholkatzeko;
- b) Emakumearen egoera orokorra ikuskatzeko;
- c) Diskriminazioa ezabatzera zuzen daitezen politika berriak gertatzen laguntzeko eta estrategiak eta neurriak eraginkortasunez aplikatzeko.

2. Konbentzioa, Estatu Kideek 18. artikuluaaren arabera aurkeztutako txostenak eta Batzordearen txostenak Estatu interesatuen hizkuntzetan zabaltzeko neurriak har ditzatela.

3. Idazkari Nagusiari eta Informazio Publikorako Sailari Konbentzioaren eta Batzordearen txostenen itzulpenak egiteko laguntza eska diezaiotela.

4. Euren hasierako eta aldizkako txostenetan gomendio honi buruz hartutako neurriak bil ditzatela.

7. Gomendio orokorra (zazpigarren bilkuraldia, 1988) Baliabideak

Emakumearen kontrako Diskriminazioa Ezabatzeko Batzordeak,

Ohartuta Batzar Orokorraren 40/39 eta 41/108 erabakiak eta, zehazki, 42/60 erabakiaren 14. lerroaldea, bertan eska-

tzen baitzaie Batzordeari eta Estatu Kideei Batzordearen geroko bilerak Vianan egitearen arazoa aztertzea,

Gogoan izanik Batzar Orokorraren 42/105 erabakia eta, zehazki, bere 11. lerroaldea, bertan eskatzen baitzaio Idazkari Nagusiari Nazio Batuen Giza Eskubideen Zentroaren eta Idazkaritzaren Gizarte Garapen eta Gizaldekoko Gaietarako Zentroaren arteko koordinazioa hobetzea, giza eskubideei buruzko itunen aplikazioari eta itunetan aurrikusten diren organoen zerbitzuen prestazioari dagokionean, alegia,

Gomendatzen die Estatu Kideei:

1. Genevako Giza Eskubideen Zentroaren eta Vienako Gizarte Garapen eta Gizaldekoko Gaietarako Zentroaren arteko koordinazioa indartzeko proposamenak bultzatzen jarrai dezatela, Batzordeari zerbitzuak egiteari dagokionean.

2. Batzordea New York eta Vianan biltzeko proposamenen alde egin dezatela.

3. Batzordeak Konbentzioak ematen dizkion eginkizunak betetzen lagun diezaioten baliabide eta zerbitzu egokiak edukitzea eta, zehazki, Batzordeari bere bilkuraldiak prestatzen eta bilkuraldietan lagun diezaion lanaldi osoko pertsonala edukitzea bermatzeko behar izan daitezen neurri egokiak har ditzatela.

4. Txostenak eta material osagarriak, Nazio Batuen hizkuntza ofizialetara, banatzeko eta Batzordeak aztertzeko garaian, itzul daitezen, Idazkaritzari garaiz helaraziko zaizkiola berma dezatela.

8. Gomendio orokorra (zazpigarren bilkuraldia, 1988)

Konbentzioaren 8. artikuluaren aplikazioa

Emakumearen kontrako Diskriminazioa Ezabatzeko Batzordeak,

Aztertuak dituela Estatu Kideek Konbentzioaren 18. artikuluen arabera aurkeztutako txostenak,

Gomendatzen die Estatu Kideei beste neurri zuzen batzuk har ditzatela Konbentzioaren 4. artikuluari atxikiz, Konbentzioaren 8. artikuluen bete-beteko aplikazioa lortu eta emakumeari, gizonarekiko berdintasun baldintzetan eta inolako diskriminaziorik gabe, bere gobernua nazioarteko mailan ordezkatzeko eta nazioarteko erakundeen zereginean esku hartzeko aukerak bermatzeko xedez.

9. Gomendio orokorra (zortzigarren bilkuraldia, 1989)

Emakumearen egoerari buruzko estatistikak

Emakumearen kontrako Diskriminazioa Ezabatzeko Batzordeak,

Aintzat hartuta informazio estatistikoa guztiz beharrezkoa dela emakumeak Konbentzioko Estatu Kideetako bakoitzean duen egiazko egoera ulertzeko,

Ikusi izanik Batzordeak aztertze txostenak aurkezten dituzten Estatu Kideetarik askok estatistikarik ematen ez dutela,

Gomendatzen die Estatu Kideei ahal den guztia egin dezatela beren nazioko zerbitzu estatistikoek, nazio zentsuak eta beste gizarte eta ekonomi inkesta batzuk planifikatzeaz arduratzen direnek, galdesortak zenbaki absolutuei eta porzentaiei dagozkien datuak sexuaren arabera bereizi ahal izateko moduan egiten dituztela bermatzeko, baliatzaile interesatuek erraz lortu ahal dezaten emakumeak interesatzen zaien sektore zehatzean duen egoerari buruzko informazioa.

10. Gomendio orokorra (zortzigarren bilkuraldia, 1989)

Emakumearen kontrako diskriminazio era guztiak ezabatzeko Konbentzioaren onarpenaren hamargarren urteurrena

Emakumearen kontrako Diskriminazioa Ezabatzeko Batzordeak,

Aintzat hartuta 1989ko abenduaren 18an betetzen dela emakumearen kontrako diskriminazio era guztiak ezabatzeko Konbentzioaren onarpenaren hamargarren urteurrena,

Aintzat hartuta gainera hamar urte hauetan agerian jarri dela Konbentzioa Nazio Batuek onarturiko tresna eginkorretako bat dela bere Estatu Kideen gizarteetan bi sexuen arteko berdintasuna bultzatzeko,

Gogoraraziz 6. gomendio orokorra, mekanismo nazional eraginkorrari eta publizitateari buruzkoa, Batzordeak bere zazpigarren bilkuraldian adierazia,

Gomendatzen du, Konbentzioaren onarpenaren hamargarren urteurrena dela-eta, Estatu Kideek honako hauek egin ahal izatea azter dezatela:

1. Emakumearen kontrako diskriminazio era guztiak ezabatzeari buruzko Konbentzioari publizitatea emateko programak, are hitzaldiak eta mintegiak ere, burutzea, hizkuntza nagusietan, eta Konbentzioari buruzko informazioa ematea euren herrietan.

2. Euren herrietako emakumeen erakundeei Konbentzioari eta beronen aplikazioari buruzko publizitate kanpaine-

tan lagun dezaten eta gobernuz kanpoko erakundeei nazio, herrialde eta nazioarteko mailetan Konbentzioari eta bere aplikazioari publikitatea emateko bultza egin diezaieten dei egitea.

3. Konbentzioaren printzipioak eta, bereziki, bere 8. artikulua, hots, emakumeak Nazio Batuen jarduera maila guztietan eta Nazio Batuen sisteman parte hartzeari buruzkoa, bete-betean aplikatzen direla zaintzeko neurriak hartzea bultzatzea.

4. Nazio Batuen Idazkari Nagusiari eske egitea Konbentzioaren hamargarren urteurrena ospatzeko, honako hauek direla bide: erakunde espezializatuekin elkarlanean, Konbentzioari eta bere aplikazioari buruz Nazio Batuen hizkuntza ofizial guztietan inprimaturiko materialen eta bestelako argitalpen eta zabalkuntza, eta telebistarako Konbentzioari buruzko dokumentalen prestakuntza, bai eta Nazio Batuen Vienako Bulegoko Gizarte Garapen eta Gizaldekoko Gaietarako Zentroaren Emakumearen Aurrerapenerako Sailari, Estatu Kideek, Batzordearen txostena eguneratu eta argitaratzeko, emandako informazioaren analisi bat prestatzeko beharrezko baliabideak helaraziz, txosten hori lehenbiziz argitaratu zelarik Nairobiri 1985ean egindako Mundu Konferentziarako, hots, Nazio Batuen Emakumearentzako Lorpenak: Berdintasuna, Garapena eta Bakea Aztertu eta Ebaluatzeko Konferentziarako (A/CONF. 116/13).

11. Gomendio orokorra (zortzigarren bilkuraldia, 1989) Txostenak aurkezteko beharkizunei buruzko aholku tekniko Zerbitzuak

Emakumearen kontrako Diskriminazioa Ezabatzekeo Batzordeak,

Gogoan izanik, 1989ko martxoaren 3rako, 96 Estatu berritsia zutela Emakumearen kontrako diskriminazio era guztiak ezabatzekeo Konbentzioa,

Kontutan izanik egun horretara arte 60 hasierako txosten eta 19 bigarren aldizkako txosten hartuak zirela,

Ikusiz 36 hasierako txosten eta 36 bigarren aldizkako txosten, beranduenik, 1989ko martxoaren 3an aurkeztuak behar zirela baina artean jasoak ez zirela,

Ohartu eta aitortuz Nazio Batuen Batzar Orokorraren 43/115 erabakiak, bere 9. lerroaldean, Idazkari Nagusiari, dauden baliabideen muga barruan eta aholku zerbitzuen

programaren lehentasunak kontuan hartuta, giza eskubideei buruzko nazioarteko tresnei atxikiz txostenak aurkezteko beharkizunak betetzeko zailtasunik larrienak agertzen dituzten herrientzat, gaikuntza ikastaro berriak antolatzea eskatzen diola,

Gomendatzen die Estatu Kideei aholku tekniko zerbitzuen proiektuak bultzatu eta laguntzea, eta bertan lankide izan daitezela, barne daudela eska dezaten Estatu Kideei Konbentzioaren 18. artikulua araberako txostenen aurkezpenari buruzko beharkizunak betetzen laguntzeko gaikuntza mintegiak ere.

12. Gomendio orokorra (zortzigarren bilkuraldia, 1989)

Emakumearen kontrako indarkeria

Emakumearen kontrako Diskriminazioa Ezabatzeko Batzordeak,

Aintzat hartuz Konbentzioaren 2, 5, 11, 12 eta 16. artikuluek behartu egiten dituztela Estatu Kideak emakumeari, familian, lanean edo gizarte bizitzako beste edozein esparrutan gerta dadin nolanahiko indarkeriatik babestera,

Kontutan izanik Ekonomi eta Gizarte Kontseiluaren 1988/27 erabakia,

Gomendatzen die Estatu Kideei Batzordearentzako euren aldizkako txostenetan honako informazio hau biltzea:

1. Emakumeari eguneroko bizitzan nolanahiko indarkeria sarritik babesteko indarreko legeria (indarkeria sexuala, famili barruko tratu txarrak, eraso sexuala lantokian, etab. barne direla).

2. Indarkeria hori erauzteko hartuak diren beste neurri batzuk.

3. Erasok edo tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei laguntzeko zerbitzuak.

4. Emakumearen kontrako nolanahiko indarkeriaren sarritasunari eta indarkeria jasaten duten emakumeei buruzko datu estatistikoak.

13. Gomendio orokorra (zortzigarren bilkuraldia, 1989)Ordainketa berdina balio bereko lanagatik

Emakumearen kontrako Diskriminazioa Ezabatzeko Batzordeak,

Gogoraraziz Lanaren Nazioarteko Erakundearen 100. Hitzarmena, hots, balio bereko lanagatik gizonezkoen eta emakumezkoen lanaren arteko ordainketa berdintasunari

buruzkoa, emakumearen kontrako diskriminazio era guztiak ezabatzeke Konbentzioko Estatu Kideetarik gehien-gehienek berretsia izan dena,

Gogorazariz, halaber, 1983az geroztik, Estatu Kideen 51 hasierako txosten eta bost bigarren aldizkako txosten aztertu dituela,

Aintzat hartuz, Estatu Kideen txostenek balio bereko lanagatik ordainketa berdina izatearen printzipioa herri askotako legerian onartua izan dela adierazten badute ere, beharrezkoa dela oraindik printzipio hori praktikan aplikatzea, lan merkatuko sexuen arteko bereizketa gainditzeko xedez,

Gomendatzen die emakumearen kontrako diskriminazio era guztiak ezabatzeke Konbentzioko Estatu Kideei:

1. Oraindik egin ez duten Estatu Kideei LNEaren 100. Hitzarmena berresteko bihotz ematea; emakumearen kontrako diskriminazio era guztiak ezabatzeke Konbentzioa bete-betean aplikatzeko helburuz.

2. Sexuari dagokionez irizpide neutralak oinarri, lanak ebaluatzeke sistemak aztertu, bultzatu eta hartu ahal izatea aintzat har dezatela, gaur egun emakumeak nagusi direneko lan ezberdinen balioa eta gaur egun gizonak nagusi direneko lanen balioa konparatzeko bide eman dezaten sistemak alegia, eta lortutako emaitzak Emakumearen kontrako Diskriminazioa Ezabatzeke Batzordearentzako euren txostenetan bil ditzatela.

3. Aplikazio mekanismoak sortzeko, ahal den neurrian, lagun dezatela eta bidezko hitzarmen kolektiboetako aldean artean, balio bereko lanagatik ordainketa berdina izatearen printzipioaren aplikazioa lortzeko ahaleginak bultzatzea.

Batzordearen bosgarren bilkuraldian adierazitako oharpen orokorrak

Estatu Kideengandik jasotako txostenak eta informazioak aztertu ondoren, Batzordeko kide askok agertu zuten honako iritzai hau:

1. Munduko biztanleriaren portzentaia haundi bat baserrialdeetan bizi denez gero, garrantzitsua da Estatu Kideek, beren hasierako txostenetan edo geroako txostenetan, honako informazio hau biltzea:

- a) Emakumeak baserrialdeetan duen egoera, emakumeak Estatu Kidearen biztanleria osoan duen portzentaia barne;

b) Aldaketak emakumearen egoeran eta bere egoeraren eboluzioa, Konbentzioaren aplikazioaren ondorioz;

c) Politika orokorrari buruzko legegintza eta administrazioiko programa edo neurriak, Konbentzioaren 14. artikulua betez onartuak, esaterako, gai hauetan:

- i) Zuzkitutako aurrezaintzazko eta jardunaldi osoko osasun zerbitzuak;
- ii) Familiaren plangintza;
- iii) Alfabetatze programak eta eskola nahiz eskolaz kanpoko hezkuntza planak;
- iv) Gaikuntza, elkarlaguntza programak eta azpiegiturak ezartzea, esaterako, kooperatibak;
- v) Emakumeari, norbanakoa den aldetik, emandako kredituak eta maileguak (hasierako kapital moduan); emakumeari bere izenean kontratuak izenpetzeko eta egiteko gaitasuna onartzea, emakumearen bermatzaile, emakumea onuradun edo menpeko den aldetik, diharduen besteren partaidetzarik gabe;
- vi) Lurraren jabetza;
- vii) Emakumearen lan eta bizitzako baldintzak errazteko teknologia egokiak.

2. Estatu Kideek aintzat hartu beharko lituzkete emakumeak, administrazio publikoaren erabakiak hartzeko mailan eta Nazio Batuen nahiz politika, ekonomia, gizarte eta kultur gaitan aritzen diren beste nazioarteko erakunde eta organismo batzuen aurreko ordezkaritza ofizialetan, parte hartze handiagoa izatea lortzeko neurriak.

3. Oraindik egin ez duten Estatu Kideek aintzat hartu beharko lukete berdintasunaren kontrako oztopoak, gizonari eta emakumeari egozten zaien eginkizunari buruzko kontzeptu estereotipuetan oinarritzen diren aurritzi, ohitura edo praktiken ondoriozkoak, gainditzeko eta portaera eredu soziokulturalak aldatzeko neurri egokiak hartu ahal izatea. Hasierako txostenean edo geroko txostenetan mota honetako neurriei buruzko aipamen bereziak egon beharko lirateke.

4. Hasierako txostenean, edo geroko txostenetan, gizonaren eta emakumearen alokairu eta langabezia mailari buruzko informazioa bildu beharko litzateke, bai eta langabeziari eta ordainketa mailen ezberdintasunari aurka egiteko neurriei buruzkoa ere.

14. Gomendio orokorra (bederatzigarren bilkuraldia, 1990) (1) genitalen mutilazioa

Emakumearen kontrako Diskriminazioa Ezabatzeko Batzordeak,

Kezkaturik genitalen mutilazioaren praktikak eta emakumearen osasunerako kaltegarriak diren beste tradiziozko praktika batzuek jarraitzen dutelako,

Atseginez ikusiz praktika horiek dauden herri batzuek, eta emakumeen nazioko erakunde batzuek, gobernuen kanpoko erakundeek eta erakunde espezializatuak, esaterako, Osasunaren Munduko Erakundeak, Nazio Batuen Umeentzako Fondoak, eta Giza Eskubideen Batzordea eta beronen Diskriminazioei Aurre Hartzeko eta Gutxiengoak Babesteko Azpiatzordeak, arazoa aztertzen jarraitzen dutela eta, zehazki, genitalen mutilazioa bezalako tradiziozko praktikek emakumei eta umeei osasun aldetiko eta bestelako ondorio larriak dakartzietela onartu dutela,

Axolaz ohartuta emakumeen eta umeen osasunari darragioten tradiziozko praktikei buruzko Berri-emaile Bereziaren azterlana (2), eta tradiziozko praktikei buruzko Lantalde Bereziaren azterlana (3),

Aitorturik emakumeak eurak neurri garrantzitsuak hartzen ari direla emakumeen eta umeen osasun eta ongizaterako kaltegarriak diren praktikak bereizteko eta praktika horien aurka ekiteko,

Sinistuta gobernuak lagundu eta bultzatu behar dituztela emakumeak eta talde interesatu guztiak hartzen ari diren neurri garrantzitsuak,

Kezka haundiz ikusiz genitalen mutilazioa bezalako praktika kaltegarriak iraunarazteko lagungarri diren kultur, tradizio eta ekonomi presioek jarraitzen dutela,

Gomendatzen die Estatu Kideei:

a) Neurri egoki eta eraginkorrek har ditzatela, genitalen mutilazioa erauztera zuzenduak. Neurri horiek honako hau bildu ahal izango lukete:

- i) Unibertsitateek, mediku edo erizainen elkarteek, emakumeen nazioko erakundeek eta bestelako erakundeek tradiziozko praktika horiei buruzko oinarriko datuak bildu eta zabaltzea;
- ii) Genitalen mutilazioa eta emakumearentzat kaltegarri diren beste praktika batzuk ezabatzearen alde aritzen diren emakumeen erakundeei, nazio eta toki mailan, laguntzea;

- iii) Politikari profesionalei, maila guztietako erlijio eta komunitate buruzagiei, hedabideei nahiz arte adierazpideei barne, bihotz ematea genitalen mutilazioa erazketari buruzko pentsamoldea aldatzen lagun dezaten;
- iv) Irakaskuntza eta gaikuntza programa eta mintegi egokiak antolatzea, genitalen mutilazioak gertarazten dituen arazoei buruzko ikerketen ondorioetan oinarrituak;

b) Beren nazioko osasun politiketan genitalen mutilazioa osasun laguntza publikoaren programetatik erazteko estrategia egokiak sar ditzatela. Estrategia horiek osasun arloko pertsonalak duen erantzukizun berezia bidul ahal izango luke, tradiziozko emaginena barne, genitalen mutilazioaren eragin kaltegarriak azaltzeari dagokionez;

c) Nazio Batuen sistemako erakunde egokiei laguntza, informazio eta aholkua eska diezaietela, tradiziozko praktika kaltegarriak ezabatzeko egiten diren ahaleginei laguntzeko;

d) Beren Batzordearentzako txostenetan, emakumearen kontrako diskriminazio era guztiak ezabatzeko Konbentzioaren 10 eta 12. artikuluen arabera, genitalen mutilazioa ezabatzeko hartu dituzten neurriei buruzko informazioa sar dezatela.

15. Gomendio orokorra (bederatzigarren bilkuraldia) Hartutako immuno-eskasiaren sindromeari (HIES) aurre hartzeko eta aurka egiteko nazio estrategietan emakumearen kontrako diskriminazioa galarazi beharra

Emakumearen kontrako Diskriminazioa Ezabatzeko Batzordeak,

Aztertu izanik bere aditasunpean jarritako informazioa, hots, hartutako immuno-eskasiaren sindromearen (HIES) pandemia mundialak eta HIESaren kontrako borroka estrategiek emakumearen eskubideen erabilerarekiko izan dezaketen eraginei buruzkoa,

Kontutan izanik Osasunaren Munduko Erakundeak eta Nazio Batuen beste erakunde, organo eta organismo batzuek, gizakiaren immuno-eskasiaren birusari (GIB) buruz, prestaturiko txostenak eta materialak eta, zehazki, Idazkari Nagusiak Emakumearen Lege eta Gizarte Egoeraren Batzordeari, hartutako immuno-eskasiaren sindromeak (HIES) emakumearen aurrerapenean dituen eraginei buruz, aurkeztuta-

ko agiria (4) eta Genevan, 1989ko uztailaren 26tik 28ra, egingako HIES eta Giza Eskubideei buruzko Nazioarteko Kontsultaren Azken Agiria (5),

Ohartuta Osasunaren Mundu Batzarraren 1988ko maiatzaren 13ko WHA 41.24 erabakia, hots, gizakiaren immunoeskasiaren birusak (GIB) kutsatutako pertsonen eta HIESak jotako gaixoen kontrako diskriminazioa galarazi beharrari buruzkoa, Giza Eskubideen Batzordearen 1989ko martxoaren 2ko 1989/11 erabakia, osasun arloko diskriminaziorik ezari buruzkoa, eta batez ere 1989ko azaroaren 30eko Parisko Adierazpena, Emakume, Ume eta HIESari buruzkoa,

Ohartuta Osasunaren Munduko Erakundeak 1990eko abenduaren 1ean izango den HIESaren kontrako Munduko Borroka Egunaren gaia «Emakumea eta Hiesa» izango dela iragarri zuela,

Gomendatzen die Estatu Kideei:

a) Informazioa hedatzeko neurriak areagotzea, jendeari Gizakiaren immunoeskasiaren birusarekin (GIB) eta HIESarekin infekzioa hartzearen arriskua, batez ere emakume eta umeentzako, eta hauei dakarzkieten eraginak jakinarazteko;

b) HIESaren kontrako ekintza programetan, emakumeen eta umeen eskubide eta beharrezaneko arreta berezia eman diezaietela, bai eta emakumearen ugalketa funtzioarekin eta gizarte batzuetan duen menpeko jarrerarekin zerikusia duten faktoreei ere, hau dela eta bereziki zaurkorra baita gizakiaren immunoeskasiaren birusaren (GIB) infekzioarekiko;

c) Emakumeak osasunaren oinarritzko laguntzan partaidetza ekinkorra izan dezan ardura daitezela eta ardura-emaille, osasun-langile eta GIBarekiko infekzioari aurre hartzearen arloko hezitzaile diren aldetik, betetzen duten zeregina areagotzeko neurriak har ditzatela;

d) Konbentzioaren 12. artikulua betetzeko prestatzen dituzten txostenetan, HIESak emakumearen egoeran dituen eraginei buruzko informazioa eta gizakiaren immunoeskasiaren birusak edo HIESak jotako emakumeen kontrako diskriminazioa galarazteko hartuak dituzten neurriak bil ditzatela.

16. Gomendio orokorra (X) Baserrialde eta hirialdeko famili enpresetan ordainik gabe lan egiten duten emakumeak

Emakumearen kontrako Diskriminazioa Ezabatzeko Batzordeak,

Gogoan izanik emakumearen kontrako diskriminazio era guztiak ezabatzeko Konbentzioaren 2. artikulua c) idatzia eta 11. artikulua c), d) eta e) idatzia eta emakumearen egoerari dagozkion estatistikei buruzko 9. gomendio orokorra (zortzigarren bilkuraldia, 1989),

Kontutan izanik Estatu Kideetan emakumeen portzentaia altu batek ordainik, gizarte segurantzarik eta gizarte prestaziorik gabe, familiako gizonezko baten jabetzakoak izan ohi diren enpresetan, lan egiten duela,

Ikusiz Emakumearen kontrako Diskriminazioa Ezabatzeko Batzordeari aurkezten zaizkion txostenek, oro har, ez dutela famili enpresetan ordainik gabe lan egiten duten emakumeen arazoa aipatzen,

Baieztuz lan ordaingabea Konbentzioaren aurkakoa den emakumearen ustiapen era bat dela,

Gomendatzen die Estatu Kideei:

a) Beren Batzordearentzako txostenetan, famili enpresetan ordainik gabe lan egiten duten emakumeen lege eta gizarte egoerari buruzko informazioa sar dezatela;

b) Familiar baten jabetzako enpresetan ordainik, gizarte segurantzarik eta gizarte prestaziorik gabe lan egiten duten emakumeei buruzko datu estatistikoak bildu eta datu hauek Batzordearentzako txostenetan sar ditzatela;

c) Familiar baten jabetzako enpresetan horrelako prestazioak jaso gabe lan egiten duten emakumeei ordainketa, gizarte segurantzaren eta gizarte prestazioak bermatzeko beharrezko neurriak har ditzatela.

17. Gomendio orokorra (X) Emakumearen etxeko lan ordaingabea neurtzea eta hainbatzea eta nazio ekoiz- pen gordinen aitortzea

Emakumearen kontrako Diskriminazioa Ezabatzeko Batzordeak,

Gogoan izanik emakumearen kontrako diskriminazio era guztiak ezabatzeko Konbentzioaren 11. artikulua,

Gogoraziz Nairobiko emakumeen aurrerapenerako etorkizuneranzko estrategien 120. lerroaldea (6),

Baieztuz herri bakoitzaren garapenean laguntzen duen emakumearen etxeko lan ordaingabearen neurketa eta hainbaketa, lagungarri izango direla emakumeak egitez betetzen duen ekonomi eginkizuna agerian jartzen,

Sinistuta neurketa eta hainbaketa horiek emakumearen aurrerapenari dagozkion beste politika batzuk adierazteko oinarria eskaintzen dutela,

Ohartuta Nazio Batuen Estatistika Batzordearen 25. bilkuraldian, Kontu Nazionalen Sistemari eta emakumeari buruzko estatistikak prestatzeari dagokienez, izandako eztabaidaketak,

Gomendatzen die Estatu Kideei:

a) Emakumearen etxeko lan ordaingabea neurtu eta baloratzeko ikerketak eta azterlan esperimentalak bultzatu eta lagundu ditzatela, esaterako, etxeei buruzko inkesta nazionalen programen barruan denboraren erabilerari buruzko inkestak eginez eta etxeko zereginetan eta lan merkatuan erabilitako denborari buruzko eta sexuen arabera bereizitako estatistikak bilduz;

b) Emakumearen kontrako diskriminazio era guztiak ezabatzeko Konbentzioaren xedapenei eta Nairobiko emakumeen aurrerapenerako etorkizuneranzko estrategiei atxikiz, emakumearen etxeko lan ordaingabea hainbatzeko eta nazio ekoizpen gordinen sartzeko neurriak har ditzatela;

c) Konbentzioaren 18. artikularen arabera aurkez ditzaten txostenetan, emakumearen etxeko lan ordaingabea neurtu eta baloratzeko egindako ikerketei eta azterlan esperimentalei buruzko informazioa eta lan hori kontu nazionalera sartzeko lortuak diren aurrerapenei buruzkoa sar dezatela.

18. Gomendio orokorra (X) Emakume ezgaituak

Emakumearen kontrako Diskriminazioa Ezabatzeko Batzordeak,

Aintzat hartuz, zehazki, emakumearen kontrako diskriminazio era guztiak ezabatzeko Konbentzioaren 3. artikulua,

Aztertu izanik Estatu Kideen 60 aldizkako txosten baino gehiago eta ikusi izanik txosten horiek emakume ezgaituei buruzko informazio urria eskaintzen dutela,

Kezkaturik emakume ezgaituen egoeratik, bizitzen duten egoerari loturiko diskriminazio bikoitza jasaten baitute,

Gogoraraziz Nairobiko emakumeen aurrerapenerako etorkizuneranzko Estrategien 296. lerroaldea (7), bertan, «interes bereziko egoerak» epigrafepean, emakume ezgaituei talde zaurkor irizten zaiela,

Bere aldeketasuna adieraziz Ezinduentzako Munduko Ekintza Programari (1982) (8),

Gomendatzen die Estatu Kideei beren aldezako txostenetan emakume ezgaituei buruz eta berauen egoera bereziari aurre egiteko hartuak diren neurriei buruzko informazioa biltzea, hezkuntza eta enplegua, osasun zerbitzuetara eta gizarte segurantzara iristeko nahiz gizarte eta kultur bizitzako esparru guztietan parte hartzeko berdintasuna bermatzeko neurri bereziei buruzkoa barne.

Oharrak

- (1) Agiri hau ez da itzuli ofizialki.
- (2) E/CN.4/Sub.2/1989/42.
- (3) E/CN.4/1986/42.
- (4) E/CN.6/1989/6/Add.1.
- (5) HR/AIDS/1989/3.
- (6) *Nazio Batuen Hamarrurteko Emakumearentzako Lorpenak: Berdintasuna, Garapena eta Bakea Aztertu eta Ebaluatzeko Mundu Konferentziaren Txostena, Nairobi, 1985eko uztailaren 15etik 25ra* (Nazio Batuen Argitalpena, salmenta Zk. S.85.IV.10), I. kap., A. zatia.
- (7) *Nazio Batuen Hamarrurteko Emakumearentzako Lorpenak: Berdintasuna, Garapena eta Bakea Aztertu eta Ebaluatzeko Mundu Konferentziaren Txostena, Nairobi, 1985eko uztailaren 15etik 25ra* (Nazio Batuen Argitalpena, salmenta Zk. S.85.IV.10), I. kap., A. zatia.
- (8) A/37/351/Add. 1 eta Add. 1/Zuzenk. 1, eraskina, VIII. zatia.

19. Gomendio orokorra (11. bilkuraldia) Emakumearen kontrako indarkeria (1)

Aurrekariak

1. Diskriminazio era bat dugu emakumearen kontrako indarkeria, emakumeari eskubideak eta askatasunak gizonarekiko berdintasun baldintzetan erabiltzeko gaitasuna larriki eragozten diona.

2. Batzordeak gomendatu egin zuen, 1989an, Estatuak beren txostenetan indarkeriari buruz eta indarkeria tratatzeko hartutako neurriei buruzko informazioa biltzea (12. gomendio orokorra, zortzigarren bilkuraldia).

3. Hamargarren bilkuraldian, 1991n egindakoan, erabaki zen 11. bilkuraldiko zati bat 6. artikulua eta emakumearen kontrako indarkeriari, emakumearekiko eraso sexualari eta ustiapenari buruzko beste artikulua batzuk eztabaidatu eta aztertzeko erabiltzea. Batzar Orokorrak bere 1990eko abenduaren 18ko 45/155 erabakian deitutako Giza Eskubideei buruzko Mundu Konferentzia 1993an egin izanaren ondorioz hautatu zen gaia.

4. Batzordeak ondorio bat atera zuen, hots, Estatu Kideen txostenek ez zutela beti behar bezala isladatzen emakumearen kontrako diskriminazioaren, emakumearen kontrako indarkeriaren eta giza eskubide nahiz funtsezko askatasunen hauspenen arteko lotura hertsia. Konbentzioaren benazko aplikazioak Estatu Kideek emakumearen kontrako indarkeriaren alde guztiak ezabatzeko neurri positiboak hartzea eskatzen du.

5. Batzordeak iradoki egin zien Estatu Kideei beren lege eta politikak aztertzerakoan, eta Konbentzioaren arabeko txostenak aurkezterakoan, kontuan izan zitzatela Batzordeak emakumearen kontrako indarkeriari buruz egindako honako oharpen orokor hauek.

Oharpen orokorrak

6. Konbentzioaren 1. artikuluan definitzen da emakumearen kontrako diskriminazioa. Diskriminazioaren definizioan sartzen da sexuan oinarritzen den indarkeria, hots, emakumearen kontra, emakumea delako, zuzentzen den edo

neurrigabeki daragion indarkeria. Sartzen dira gorputz, buru edo sexu izaerako kalte edo oinazea sortzen duten egintzak, egintza horien mehatxuak, derrigortzea edo askatasuna kentzeko beste era batzuk. Emakumearen kontrako indarkeriak Konbentzioaren xedapen zehatzak hauts ditzake, xedapen horietan indarkeria berariz aipatu edo ez.

7. Emakumearen kontrako indarkeria, emakumeari bere giza eskubide eta funtsezko askatasunen erabilera gutxitu edo deuseztatzen diona, giza eskubideei buruzko nazioarteko zuzenbidearen edo itun berezien arabera, diskriminazioa da Konbentzioaren 1. artikuluan ulertzen den moduan. Eskubide eta askatasun hauetan honako hauek sartzen dira, besteak beste:

- a) Bizitza eskubidea;
- b) Oinaze edo tratu edo zigor anker, ezgizatiar edo lotsagarririk ez jasateko eskubidea;
- c) Babeserako eskubidea nazioarteko edo nazio barruko gatazka armatuaren denboran, gizaldeko arauen berdintasun baldintzetan;
- d) Pertsonen askatasun eta segurtasunerako eskubidea;
- e) Legearen babes berdinerako eskubidea;
- f) Familiaren barruko berdintasunerako eskubidea;
- g) Ahal den gorputz eta buru osasunaren mailarik altuenerako eskubidea;
- h) Enplegu baldintza zuzen eta faboragarrietarako eskubidea.

8. Konbentzioa herri agintariek erabilitako indarkeriari aplikatzen zaio. Indarkeria egintza hauek, giza eskubideei buruzko nazioarteko zuzenbidearen eta beste itun batzuen arabera, Estatuaren betebeharren hauspena izan daitezke, Konbentzio honen hauspena izateaz gainera.

9. Alabaina, azpimarratu behar da, Konbentzioaren arabera, diskriminazioa ez dela mugatzen gobernuek edo beren izenean burututako egintzetara -ikus bitez 2. artikulua-ren e) eta f) idazatiak eta 5. artikulua-. Esaterako, Konbentzioaren 2. artikulua-ren e) idazatiaren arabera, Estatu Kideek gain hartzen dute edozein pertsona, erakunde edo enpresak emakumearen kontra egindako diskriminazioa ezabatzeko beharrezko neurriak hartzea. Giza eskubideei buruzko nazioarteko zuzenbidearen eta berarizko itunen arabera, Estatuak egintza pribatuen erantzule ere izan daitezke, beharrezko

axolaz hartzen ez badituzte eskubideen hauspena galarazteko edo indarkeria egintzak ikertu eta zigortzeko eta kalteordaina emateko neurriak.

Konbentzioaren xedapen zehatzei buruzko oharpenak

2 eta 3. artikulua

10. Bigarren eta 3. artikuluek diskriminazio era guztiak ezabatzeko beharkizun zabala ezartzen dute, 5. artikulutik 16.eraingo agertzen diren berarizko beharkizunez gainera.

2.f), 5 eta 10.c) artikulua

11. Tradiziozko jarrerak, hots, emakumeari menpeko iritzi edo eginkizun estereotipatuak ematen dizkietenek, irau-narazi egiten dute indarkeria edo derrigortzea daramaten praktiken hedapena, esaterako, familia barruko indarkeria eta tratu txarrak, derrigorrezko ezkontzak, ezkontsari askiek aurkezteagatik hilketak, azido bidezko erasoak eta genitalen mutilazioa. Aurrititzi eta praktika hauek emakumearen kontrako indarkeria justifikatzeraino iritsi daitezke, emakumea babesteko edo menperatzeko modu bat bezala. Emakumearen gorputz eta buru osotasunarekiko indarkeria horrek duen eragina, haren giza eskubide eta funtsezko askatasunen egiazko gozamen, erabilera eta are ezagupena ere galaraztea da. Oharpen honetan emakumearen kontrako egiazko indarkeria edo indarkeriaren mehatxuak azpimarrazten diren arren, hauen oinarritzko ondorio estrukturalak lagundu egiten dute emakumeari menpeko egoera batean eusten, politikan partaidetza urria eduki eta behe mailako hezkuntza eta, gaikuntza eta enplegu-aukera gutxi izan dezan.

12. Jarrera hauek lagundu egiten dute, halaber, pornografia hedatzeko eta emakumea, pertsona barik, sexu objektu bezala irudikatze eta bestelako merkatal ustiapena egiteko. Horrek, aldi berean, emakumearen kontrako indarkeria bultzatzen du.

6. artikulua

13. Seigarren artikuluan eskatu egiten zaie Estatuei emakumeen tratua eta emakumearen prostituzioaren ustiapen era guztiak ezabatzeke neurriak har ditzatela.

14. Pobreziak eta langabeziak ugaltu egiten dituzte emakumeen traturako aukerak. Ezarrita dauden moduez gainera, badaude sexu ustiapen era berriak, esaterako, sexu turismoa, garabidean dauden herrietako emakumeak herri garatuetako etxeko langile kontratatzea eta garabideko herrietako emakumeen eta atzerritarren artean hitzartutako ezkontzak. Praktika hauek bateraezinak dira eskubide berdintasunarekin eta emakumeen eskubideen errespetu eta duintasunarekin, eta emakumeak jartzen dituzte indarkeria eta tratu txarrak jasateko arrisku egoera berezietan.

15. Pobreziak eta langabeziak behartu egiten dituzte, halaber, emakume asko, eta are neskatoak ere, prostituzioan aritzera. Prostitutek indarkeria jasateko arrisku berezia dute, bazterreratzen dituen beren egoera ez-zilegiagatik. Bortxaketaren eta indarkeriaren aurkako legearen babesa behar dute, beste emakume batzuek bezalaxe.

16. Gerrek, gatazka armatuek eta lurraldeen okupazioak sarri askotan eramaten dute prostituzioa, emakumeen tratua eta emakumearen kontrako sexu erasoak ugaltzera, neurri babesle eta zigortzaile bereziak hartzea behar delarik.

11. artikulua

17. Enpleguarekiko berdintasuna benetan kaltetua gerta daiteke emakumeek, emakumeak izateagatik, berengana zehazki zuzendutako indarkeria jasan behar dutenean, esaterako, esetsaldi sexuala lantokian.

18. Esetsaldi sexualean sexu izaerako portaerak sartzen dira, esaterako, kontaktu fisikoak eta keinuak, sexu izaerako oharpenak, pornografia erakustea eta sexu eskaerak, ahozkoak zein egitezkoak. Mota horretako portaera lotsagarria izan daiteke, eta osasun eta segurtasun arazo bihurtu ere; diskriminatzailea da emakumeak nahiko arrazoi dituen bere ezezkoak lanarekiko arazoak, are kontratazio edo igoe-rarekikoak, ekar liezazkiokeela pentsatzeko, edo kontrako lan-giroa sortzen duenean.

12. artikulua

19. Hamabigarren artikuluan osasun zerbitzuetarako iristeko berdintasuna berma dezaten neurriak hartzea eskatzen zaie Estatu Kideei. Emakumearen kontrako indarkeriak arriskuan jartzen ditu bere osasuna eta bere bizitza.

20. Estatu batzuetan, emakumeen eta umeen osasunerako kaltegarri diren praktikak egoten dira, kulturak eta tradizioak iraunarazten dituztenak. Praktika horien artean sartzen dira haurdun emakumeentzako murrizketa dietetikoak, semen hobespena eta genitalen mutilazioa.

14. artikulua

21. Baserrialdeetako emakumeek indarkeria jasateko arrisku handiagoak izaten dituzte, baserrialdeko komunitate askotan emakumearen menpeko eginkizunari buruzko tradiziozko jarrerak dirautelako. Baserrialdeko komunitateetako neskatoek indarkeria egintzak eta sexu ustiapena jasateko arrisku berezia izaten dute baserrialdeko komunitatea hirietan lana bilatzeko uzten dutenean.

16. artikulua (eta 5. artikulua)

22. Nahitaezko esterilizazioak eta abortuak eragin kaltegarria dute emakumearen gorputz eta buru osasunerako eta hautsi egiten dute emakumeak bere seme-alaben kopurua eta tartekaldia erabakitzeko duen eskubidea.

23. Familiaren barruko bortxaketa dugu emakumearen kontrako indarkeriaren erarik maltzurrenetakoa. Gizarte guztietan gertatzen da. Famili harremanetan, edozein adinetako emakumeei nolanahiko indarkeriak jasanarazten zaizkie, barne direla zauriak, bortxaketa, bestelako sexu eraso batzuk eta beste indarkeria era batzuk, buru izaerako indarkeriak eta bestelakoak, tradiziozko jarrerak iraunarazten dituztenak. Independentzia ekonomikorik ezak behartu egiten ditu emakume asko indarkeriazko harremanetan irautera. Gizonek beren famili erantzukizunei uko egitea indarkeria eta hertsapen era bat izan daiteke. Indarkeria honek arriskuan jartzen du emakumearen osasuna eta oztopatu egiten dio famili bizitzan eta bizitza publikoan berdintasun baldintzetan esku hartzeko bere gaitasuna.

Gomendio zehatza

24. Aurreko oharpenen argitan, Emakumearen kontrako Diskriminazioa Ezabatzeko Batzordeak honako hau gomendatzen du:

a) Estatu Kideek neurri egoki eta eraginkorrak har ditzatela sexuan oinarrituriko eta egintza publiko zein pribatuetan erabiltzen den nolana hiko indarkeriari aurka egiteko;

b) Estatuak, familiaren barruko indarkeriaren eta tratatu txarren, bortxaketaren, sexu erasoen eta emakumearen kontrako bestelako indarkeriaren aurkako legeek emakume guztiak babestu eta beren osotasun eta duintasuna errespeta ditzaten ardura daitezela. Biktimei babes eta laguntza zerbitzu egokiak eskaini behar zaizkie. Ezinbestekoa da funtzionario judizialak, legea betearazteaz arduratzen diren funtzionarioak eta beste funtzionario publiko batzuk gaitzea, Konbentzioaren benetako aplikazioa lortu ahal izateko;

c) Estatuak indarkeriaren helmen, zio eta eraginei buruz eta indarkeriari aurre hartzeko eta erantzuteko neurrien eraginkortasunari buruzko estatistiken bilketa eta ikerlanak bultzatzea;

d) Neurri eraginkorrak har daitezela komunikabideek emakumea errespetatu eta emakumearenganako errespetua bultzatzea;

e) Estatu Kideek aurkezten dituzten txostenetan jarreren, ohituren eta praktiken izaera eta helmena nahiz sortzen duten indarkeria mota zehaztea. Estatuak indarkeria ezabatzeko hartuak dituzten neurriak eta lortutako emaitzei buruz informatu behar da;

f) Jarrera eta praktika hauek gaingintzeko neurri eraginkorrak har daitezela. Estatuak emakumearen berdintasuna eragozten duten aurriritziak ezabatzeko lagungarri izan daitezkeen hezkuntza eta informazio publikoaren programak ezarri beharko dituzte (3. gomendioa, 1987);

g) Aurre hartzeko eta zigortzeko neurri zehatzak hartzea, emakumeen tratua eta sexu ustiapena ezabatzeko;

h) Estatuaren txostenetan azal daitezela arazo horien guztien magnitudea eta neurriak, zigor-xedapenak barne, eta prostituzioan aritu edo tratua eta sexu ustiapenaren beste era batzuk jasaten dituzten emakumeak babesteko hartuak diren aurre hartzeko eta birgaitzeko neurriak. Neurri horien eraginkortasunari buruzko informazioa ere eman beharko da;

i) Salatu eta ordaintzeko neurri eraginkorrak aurrikustea, kalteordaina barne;

j) Estatuak beren txostenetan esetsaldi sexualari eta emakumea esetsaldi sexualetik eta lantokiko beste indarkeria edo hertsapen era batzuetatik babesteko hartuak diren neurriei buruzko datuak bil ditzatela;

k) Estatuak, etxe barruko indarkeria, bortxaketak, sexu erasoak eta emakumearen kontrako beste indarkeria era batzuk jasaten dituztenei zuzendutako zerbitzuak ezarri edo bultzatzea, gordelekuak, bereziki gaitutako osasun-lan-gileen enplegua, birgaikuntza eta aholkua barne;

l) Estatuak praktika hauei amaiera emateko neurriak har ditzatela eta Batzordeak genitalen mutilazioari buruz egindako gomendioak (14. gomendia) kontuan izan ditzatela osasunari dagozkion gaiei buruzko informazioa aurkezterakoan;

m) Estatuak ernalmen eta ugalketarekiko hertsapena galarazteko neurriak aplikatzen ahalegin daitezela, bai eta ernakumeek, jaiokuntzaren kontrolaren gaian zerbitzu egokirik ez dagoelako, medikuntza prozedura arriskugarriak, abortu ezlegezkoak kasu, bilatzera beharturik egon ez daitezen segurtatzeko ere;

n) Estatuak arazo horien norainokoari buruzko informazioa eman eta hartuak dituzten neurriak eta lortutako emaitzak adieraz ditzatela;

o) Estatuak baserrialdeetako emakumeak indarkeriaren biktimenezko zerbitzuetara iristea berma dezatela eta, beharrezko izanez gero, komunitate bakartuei zerbitzu bereziak eman dakizkiela;

p) Indarkeriatik babesteko neurriek enplegurako gaikuntza eta aukerak eta etxeko enplegatuen lan baldintzen berrikuspena bil ditzatela;

q) Estatu Kideek informazioa eman dezatela baserrialdeetako emakumeen arriskuei, jasanarazten zaizkien indarkeriaren eta tratu txarren helmen eta izaerari, dituzten laguntzaren eta bestelako zerbitzuen beharritasunei eta zerbitzu horietara iristeko aukerari, eta indarkeria ezabatzeke neurrien eraginkortasunari buruz;

r) Familiaren barruko indarkeriaren arazoa konpontzeko behar diren neurrien artean, honako hauek ager daitezela:

i) Zigo-zehapenak behar diren kasuetan eta errekurtsio zibilak etxe barruko indarkeriaren kasuan;

- ii) Ohorearen defentsa, familiako emakumeei erasotze-ko edo beren bizitzaren kontra atentatzeko justifikatzaile gisa, ezaba dezan legeria;
 - iii) Familiaren barruko indarkeriaren biktimen segurtasuna bermatzeko zerbitzuak, gordelekuak eta aholku eta birgaikuntza programak barne;
 - iv) Etxe barruko indarkeriaren errudunentzako birgaikuntza programak;
 - v) Intzestu edo abusu sexualaren kasua izan duten familiarentzako laguntza zerbitzuak;
- s) Estatuek etxe barruko indarkeriaren eta abusu sexualaren helmenari eta hartuak dituzten aurre hartu, zigortu eta zuzentzeko neurriei buruzko informazioa eman dezatela;
- t) Estatuek, emakumeak berenganako indarkeriaren kontra eraginkortasunez babesteko, behar izan daitezen neurri juridiko guztiak eta bestelakoak har ditzatela, besteak beste, honako hauek:
- i) Emakumea nolanahiko indarkeriatik, familia barruko indarkeriatik eta tratu txarretatik, sexu erasotik lan-tokiko esetsaldi sexualetik barne, babesteko neurri juridiko eraginkorrak, barne direla zigor-zehapenak, errekurtsio zibilak eta kalteordainei buruzko xedapenak;
 - ii) Aurre hartzeko neurriak, barne direla informazio publiko eta hezkuntza programak, gizonaren eta emakumearen eginkizunei eta egoerari buruzko jarrerak aldatzeko;
 - iii) Babes neurriak, barne direla gordelekuak, aholku, birgaikuntza eta laguntza zerbitzuak, indarkeria jasaten duten edo jasateko arriskuan dauden emakumeentzat;
 - u) Estatuek emakumearen kontrako indarkeria era guztiei buruzko informazioa eman dezatela, eta indarkeria era bakoitzaren sarritasunari eta indarkeria horrek biktima diren emakumeengan dituen eraginei buruz dituzten datu guztiak sar ditzatela;
 - v) Estatuen txostenetan, emakumearen kontrako indarkeriaren arazoa gainditzeko hartuak diren legezko, aurre hartzeko eta babesteko neurriei eta neurri horien eraginkortasunari buruzko informazioa sar dadila.

20. Gomendio orokorra (11. bilkuraldia) Konbentzioari buruz adierazitako erreserbak (2)

1. Batzordeak gogorarazi zuen Estatu Kideen Laugarren Bilkurak Konbentzioarekiko adierazitako erreserbei buruz hartutako erabakia 28.2 artikuluaaren arabera, erabaki hori oniritziz jaso izan zela Batzordearen 4. Gomendio orokorrean.

2. Batzordeak gomendatu egin zuen, 1993an egingo den Giza Eskubideei buruzko Mundu Konferentziaren antolakuntzaren esparruan, Estatu Kideek:

a) Giza eskubideei buruzko beste itun batzuekiko adierazitako erreserben baliozkotasunaren eta eragin juridikoen arazoa ager dezatela;

b) Erreserba horiek, giza eskubideei buruzko itun guztien aplikazioa indartzeko, berriro azter ditzatela;

c) Konbentzioarekiko erreserbak agertzeko prozedura bat, giza eskubideei buruzko beste itun batzuetan daudenean parekagarria, sartu ahal izatea aintzat har dezatela.

3. Iradokizuna: Giza Eskubideei buruzko Mundu Konferentzia (1993) (3)

1. Emakumearen kontrako Diskriminazioa Ezabatzeke Batzordeak eskatu egiten du Giza Eskubideen Mundu Konferentziaren programan emakumearen berdintasunaren gaia bete-betean islada dadila, giza eskubideen eta funtsezko askatasunen gozamenari dagokionean, eta, zehazki, emakumearen kontrako diskriminazio era guztiak ezabatzeke Konbentzioak bermatzen dituen eskubideen eta giza eskubideei buruzko beste nazioarteko tresna batzuek bermatzen dituztenen arteko lotura hertsia.

2. Gai horretan, nabarmenarazi behar da emakumearen berdintasuna arazo garrantzitsua dela giza eskubideen esparruan eta, helburu horrekin, arreta eman behar zaio, giza eskubideei buruzko itun eta konbentzioetan aurrikusitako aplikazio metodo eta mekanismoetan, arazo hau benetan aintzat hartua izan deneko neurriari.

3. Batzordeak Idazkari Nagusiari eskatzen dio, ahal den neurrian, Batzar Orokorraren 46/116 erabakiaren 5. lerroaldekoko a) idaztiaren arabera Giza Eskubideei buruzko Mundu Konferentziarako presta dadin dokumentazioan, emakumearen ikuspegia sar dadin arduratzea.

4. Batzordeak iradoki egiten du Nazio Batuen Idazkari Nagusiak neurriak har ditzala Nazio Batuen Lanbide Hezkun-

tza eta Ikerketetarako Institutuak eta Giza Eskubideen Zentroak prestatua duten giza eskubidei buruzko txostenak aurkezteko Eskuliburua, ahalbait lasterren, Nazio Batuen hizkuntza ofizial guztietara itzul dadin eta emakumearen kontrako diskriminazio era guztiak ezabatzeko Konbentzioko Estatu Kide guztiei eman dakien.

5. Batzordeak Idazkari Nagusiari iradokitzen dio emakumearen kontrako diskriminazio era guztiak ezabatzeko Konbentzioari eta Batzordearen zereginari buruzko argitalpen bat prestatzea, giza eskubideen beste tresna eta organo batzuei buruzko Folieto berri-emaileen antzerakoa.

21. Gomendio orokorra

(13. bilkuraldia)

Berdintasuna senar-emazteen artean eta famili harremanetan

1. Emakumearen kontrako diskriminazio era guztiak ezabatzeko Konbentzioak (Batzar Orokorraren 34/180 erabakia, eraskina) gizonaren eta emakumearen gizarte eta familiaren barruko eskubide berdintasuna baieztatu du. Konbentzioak leku nabarmena du giza eskubideei buruzko nazioarteko itunen artean.

2. Beste konbentzio eta adierazpen batzuek ere ematen diete garrantzia familiari eta emakumeak barruan duen egoerari. Hauen artean daude Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala -Batzar Orokorraren 217 A erabakia (III)-, Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Nazioarteko Ituna -2200 A erabakia (XXI), eraskina-, Emakume Ezkonduaren Naziotasunari buruzko Konbentzioa -1040 erabakia (XI), eraskina-, ezkontzarako baimenari, ezkontzeko gutxienezko adinari eta ezkontzen erregistroari buruzko Konbentzioa -1763 A erabakia (XVII), eraskina- eta datxekion Gomendioa -2018 erabakia (XX)- eta Nairobiko emakumeen aurrerapenerako etorkizuneranzko Estrategiak (4).

3. Emakumearen kontrako diskriminazio era guztiak ezabatzeko Konbentzioak gogorarazi egiten ditu aipatu konbentzio eta adierazpenetan finkaturik dauden emakumearen eskubide alienaezinak, baina are urrunago doa kulturak eta tradizioek gizonen eta emakumeen portaera eta pentsamoldean garrantzi handia izan dezaketela, eta emakumearen funtsezko eskubideei ezartzen zaizkien mugapenetan eragin nabarmena izan eta haien erabilera eragozten dutela aitortzen duenean.

Aurrekariak

4. Batzar Orokorrak, bere 44/82 erabakian, 1994 urtea finkatu du Familiaren Nazioarteko Urtea. Batzordeak abagunea erabili nahi du emakumeak familiaren barruan funtsezko eskubideak erabiltzeak duen garrantzia azpimarratzeko, egingo diren nazio ospakizunak lagundu eta bultzatuko dituzten neurrietako bat den aldetik.

5. Familiaren Nazioarteko Urtea ospatzeko era hau aukeratua duela, Batzordeak Konbentzioaren hiru artikulua aztertutako nahi ditu, emakumeak familiaren barruan duen egoerarako garrantzi berezia baitute:

9. artikulua

1. Estatu Kideek gizonen eskubideak eurak emango dizkiete emakumeei beren naziotasuna hartu, aldatu edo kontserbatzeko. Bermatu egingo dute, zehazki, atzeritar batekin ezkontuta egotearen edo, senar-emazte barruan, senarrak bere naziotasuna aldatzearen ondorioz, emaztea automatikoki bere naziotasuna aldatu, aberrigabe bihurtu edo ezkontidearen naziotasuna hartzera beharturik ez egotea.

2. Estatu Kideek gizonaren eskubideak eurak emango dizkiete emakumeari seme-alaben naziotasunari dagokionean.

Iruzkina

6. Naziotasuna funtsezkoa da gizartean bete-betean esku hartzeko. Oro har, Estatuak herrian jaiotzen direnei ematen diete beren naziotasuna. Naziotasuna, halaber, herri batean egoitza izateagatik hartu edo gizaldeko arrazoiengatik eman daiteke, aberrigabearen kasuan bezala. Herritartasunik ez duen emakume batek ez du boto emateko eskubiderik, ez du kargu publikoetan aritzetik eta gizarte prestaziorik eta egoitza aukeratzeko eskubiderik gabe ere egon daiteke. Emakume heldu batek bere naziotasuna aldatzeko gaitasuna izan beharko luke, eta ez litzaioke bere naziotasuna nagusikeriaz kendu behar ezkontzaren edo honen desagitearen ondorioz, edo senarrak edo aitak naziotasuna aldatzearen ondorioz.

15. artikulua

1. Estatu Kideek gizonarekiko berdintasuna aitortuko diote emakumeari legearen aurrean.

2. Estatu Kideek gizonaren gaitasun juridiko berbera aitortuko diote emakumeari gai zibiletan, eta gaitasun hori erabiltzeko aukera berberak ere. Zehazki, kontratuak izenpetzeko eta ondasunak administratzeko eskubide berberak aitortuko dizkiote emakumeari, eta trataera berdina emango diote justiziako gorteetako eta auzitegietaiko prozedura-aldi guztietan.

3. Emakumearen gaitasun juridikoa mugatzen duen edozein kontratu edo eragin juridikodun beste edozein tresna pribaturi baliogabe iritziko zaiola onartzen dute Estatu Kideek.

4. Estatu Kideek eskubide berberak aitortuko dizkiete gizonari eta emakumeari, pertsonen askatasunez ibiltzeko eskubideari eta euren egoitza eta bizilekua aukeratzeko askatasunari buruzko legeriari dagokionean.

Iruzkina

7. Emakumeak kontratu bat egiteko inolako biderik ez duenean, ez eta finantza kredituetara iristekorik ere, edo bere senarraren edo gizonetzko ahaide baten baimen edo bermearekin soilik egin dezakeenean, ukatu egiten zaio bere autonomia juridikoa. Honen moduko edozein murrizketak eragotzi egiten dio ondasunen jabe bakarra izatea eta ezinezko egiten dio bere negozioen lege administrazioa edo beste edozein kontratu mota egitea. Izaera horretako murrizketek bene-benetan mugatzen dute emakumearen gaitasuna, bere beharrezaneiei edo bere ardurapeko familiarren beharrezaneiei erantzuteko gaitasuna.

8. Hainbat herritan lege mugaturik dago emakumearen auzitarako gaitasuna, edo aholku juridikora iristeko duen aukeraz eta auzitegieta konponbidea lortzeko gaitasunaz mugaturik. Beste herri batzuetan, lekuko doazen emakumeei edo aurkezten dituzten frogiei, gizonetzko lekukoei baino errespetu edo garrantzi gutxiago ematen zaie. Lege edo ohi-tura horiek mugatu egiten dute benetan emakumearen eskubidea, hots, ondarearen zati berdina lortu edo kontserbatzeko eskubidea, eta gutxietsi egiten dute osatzen duen kolektibitateko kide lokabe, arduradun eta baliotsua den aldeti-

ko jarrera. Herriek, beren legeen bitartez, emakume baten gaitasun juridikoa mugatzen dutenean, edo gizabanakoei edo erakundeei beste horrenbeste egiten uzten dietenean, ukatu egiten diote emakumeari gizonarekiko berdintasun eskubidea eta mugatu egiten diote bere beharrazanei edo bere ardurapeko familiarrenei erantzuteko gaitasuna.

9. Egoitzaren kontzeptua, "common law" duten herrietan, pertsona batek bizi nahi izan eta bere jurisdikziopean jarriko den herriari dagokio. Egoitza, lehen batean, ume batek bere gurasoen bitartez hartzen du, baina helduaren bizitzan pertsona bat normalean bizi den herria eta iraunkorki bizitzeko asmoa duen herria adierazten du. Naziotasunaren kasuan bezala, Estatu Kideen txostenak aztertzerakoan ikusten denez, emakume bati ez zaio beti bere egoitza legearen arabera aukeratzeko utziko. Emakume heldu batek bere egoitza nahierara aldatzeko gaitasuna izan beharko luke, naziotasuna ere bezalaxe, bere egoera zibila dena dela. Gizonaren baldintza berdinetan egoitza aukeratzeko emakumearen eskubidearen murrizketa orok auzitegietara iristeko ahalbidea mugatu diezaioke bizi den herrian edo, askatasunez eta bere kabuz, herri batera sartu edo honetatik irteten eragotzi.

10. Aldi baterako, beste herri batean bizi edo lan egiten duten emakume migratzaileei beren ezkontide, bizikide edo seme-alabekin batzeko eskubideak, gizonarenak eurenak, eman beharko litzaizkieke.

16. artikulua

1. Estatu Kideek neurri egoki guztiak hartuko dituzte emakumearen kontrako diskriminazioa ezabatzeko ezkontza eta famili harremanei dagozkien arazo guztietan eta, zehazki, honako hauek segurtatuko dituzte gizon eta emakumeen arteko berdintasun baldintzetan:

- a) Ezkontzeko eskubide berbera;
- b) Ezkontidea askatasunez aukeratzeko eta bere erabakimen aske eta bere baimen osoaz soilik ezkontzeko eskubide berbera;
- c) Eskubide eta erantzukizun berberak ezkontza bitartean eta ezkontza desagenez gero;
- d) Eskubide berberak guraso diren aldetik, beren egoera zibila dena dela, seme-alabekin zerikusia duten gaietan; seme-alaben interesak ardurarik behinena izango dira kasu guztietan;

e) Seme-alaben kopurua eta jaiotzen arteko aldia askatasunez eta axolaz erabakitzeko eskubide berberak, bai eta eskubide horiek erabili ahal izateko informazio, hezkuntza eta baliabideetara iristekoak ere;

f) Eskubide eta erantzukizun berberak seme-alaben tutoretza, kuratela, zaintza eta adopzioari dagokionez, edo antzerako erakundeei dagokienez, kontzeptu hauek nazioko legerian agertzen diren guztietan; seme-alaben interesak ardurarik behinena izango dira kasu guztietan;

g) Norberaren eskubide berberak senarra eta emaztea den aldetik, besteak beste, abizena, lanbidea eta ogibidea aukeratzeko eskubidea;

h) Ezkontide bakoitzarentzako eskubide berberak ondasunen jabetza, erosketa, kudeaketa, administrazio, gozamen eta erabilerari dagokionez, dohainez nahiz kostubidez.

2. Umeen ezkontitzek eta ezkontzak ez dute inolako eragin juridikorik izango eta beharrezko neurri guztiak hartuko dira, are legegintzazkoak ere, ezkontzeko gutxienezko adina finkatzeko eta ezkontza erregistro ofizial batean inskribatzea nahitaezkoa izan dadin.

Iruzkina

Bizitza publiko eta pribatua

11. Historikoki, gizakiaren jarduera, bizitza publiko eta pribatuan, era ezberdinez hartu da, eta horren arabera arau-petu da. Gizarte guztietan, emakumeek, tradizioz beren eginkizunak esparru pribatuan edo etxekoan bete dituztelarik, luzaro ikusi dituzte jarduera horiek menpekoak bailiran tratatuak.

12. Jarduera horiek gizartearen biziraupenerako balio ordaingaitza dutenez gero, jarduera hauei lege edo ohitura ezberdinak eta diskriminatzaileak aplikatzeak ez du justifikaziorik izaterik. Estatu Kideen txostenek agerian jartzen dute oraindik badaudela, egon, de jure berdintasuna ez duten herriak. Horrekin eragotzi egiten zaio emakumeari baliabideetara iristeko berdintasuna eta familian eta gizartean egoera berdintasuna edukitzea. Are de jure berdintasuna egonda ere, gizarte guztietan ematen zaizkio emakumeari eginkizun ezberdinak, menpeko irizten zaienak. Honela, hautsi egiten dira justizia eta berdintasunaren printzipioak, zehazki Konbentzioaren 16. artikuluan eta 2, 5 eta 24. artikuluetan ere ageri direnak.

Familia era ezberdinak

13. Familiaren era eta kontzeptua aldatu egiten da Estatu batetik bestera eta are, Estatu bat berean, herrialde batetik bestera ere. Hartzen duen era dena dela eta herriko ordenamendu juridikoa, erlijioa, ohitura edo tradizioa direnak direla, familia barruko emakumearen trataera, lege aurrean nahiz pribatuan, pertsona guztientzako berdintasunaren eta justiziaren printzipioei atxiki behar zaie, Konbentzioaren 2. artikulua eskatzen duen bezalaxe.

Senar-emazte poligamoak

14. Estatu Kideen txostenetan agerian jartzen da, halaber, poligamia hainbat herritan praktikatzen dela. Senar-emazte poligamoak hautsi egiten du emakumearen gizonarekiko berdintasun eskubidea, eta emakumearentzat nahiz bere ardurapeko familiarrentzat hain izan ditzake sentipen eta finantza ondorio larriak, ezen horrelako senar-emazteak gogogabetu eta debekatu behar direla. Batzordeak kezkaturik ikusten du eskubide berdintasuna bermatzen duen konstituzioa duten Estatu Kide batzuek senar-emazte poligamoak onartzen dituztela pertsonaren eskubideari edo ohiturazko zuzenbideari atxikiz. Honek hautsi egiten ditu emakumearen konstituziozko eskubideak eta Konbentzioaren 5. artikulua-ren a) idazatiko xedapenen aurkakoa da.

16. artikulua, 1. lerroaldea, a) eta b) idazatiak

15. Herri gehienek konstituzioak eta nazioko legeak Konbentzioarekin bat datozela jakinarazten badute ere, ohitura, tradizioa eta lege hauen betetzerik eza, egiaz, Konbentzioaren aurka doaz.

16. Ezkontidea aukeratzeko eta askatasunez ezkontzeko eskubidea funtsezkoa da emakumearen bizitza eta, gizakia den aldetik, bere duintasun eta berdintasunerako. Estatu Kideen txostenak aztertzeetik ondoreztatzen denez, badira emakumeek lehen edo bigarren ezkontza behartuak egiten uzten duten herriak, gizatalde jakin batzuen ohitura, erlijio sinismen edo jatorri etnikoetan oinarriturik. Beste herri batzuetan, emakumearen ezkontza antolatzen uzten da ordain edo abantailen truke, eta beste batzuetan, emakume batzuen pobrezia behartu egiten ditu atzeritarrekin ezkontzera finantza segurtasuna lortzeko. Arrazoizko murrizketa zehatz

batzuk, esaterako, emakumearen adin txikian edo bere ezkontidearekiko odolkidetasunean oinarritzen direnak, kenduta, babestu eta legearen arabera betearazi behar da emakumearen eskubidea, ezkonduko den eta noiz eta norekin ezkonduko den erabakitzeko eskubidea, alegia.

16. artikulua, 1. lerroaldea,
c) idazatia

17. Estatu Kideen txostenen azterketa batek erakusten duenez, herri askok ezkontideen eskubide eta beharkizunak ezartzen dituzte euren ordenamendu juridikoetan "common law" delakoaren printzipioen aplikazioan oinarriturik, Konbentzioan adierazten diren printzipioei atxiki beharrean. Ezkontzari buruzko legezko eta ohiturazko arauen aniztasun horrek garrantzi haundiko ondorioak ditu emakumearentzat, behin eta berriz senar-emazte barruko egoera eta erantzukizunen berdintasunerako eskubidea mugatzen diotenak. Senar-emazte barruko eskubideen mugapena izan daiteke senarra etxeko burutzat eta erabakiak hartzearen arduradun nagusitzat hartzeko kausa, eta, beraz, hautsi egiten ditu Konbentzioaren xedapenak.

18. Gainera, egitezko lotura bati, oro har, ez zaio inolako babes juridikorik ematen. Horrelako harremanetan bizi diren emakumeei legeak gizonekiko baldintza berdintasuna babestu beharko lieke famili bizitzan eta irabazien eta ondasunen banaketan. Emakume horiek gizonekiko eskubide eta beharkizunen berdintasuna izan beharko lukete seme-alaben edo beren ardurapeko familiarren ardura eta hazierari dago-kionean.

16. artikulua, 1. lerroaldea,
d) eta f) idazatiak

19. Bosgarren artikulua b) idazatian xedatzen denez, herri gehienek gurasoek seme-alaben ardura, babes eta mantenuarekiko erantzukizunak konpartitzen dituztela onartzen dute. «Seme-alaben interesak ardurarik behinena izango direla»ko printzipioa Umearen Eskubideei buruzko Konbentzioan sartu da (Batzar Orokorraren 44/25 erabakia, eraskina) eta, dirudenez, zabal onartzen da. Alabaina, herri batzuek praktikan ez dute errespetatzen seme-alaben gurasoei egoera juridiko bera ematearen printzipioa, bereziki ezkon-duta ez daudenean. Lotura horietako seme-alabek ez dute

beti senar-emazte barruan jaiotakoen egoera juridikoa bera izaten eta, amak dibortziaturik egon edo bananduta bizi direnean, aita askok ez dituzte beren seme-alaben ardura, babes eta mantenuaren erantzukizunak konpartitzen.

20. Konbentzioan azaltzen diren eskubide eta beharrikizun konpartituak legearen arabera ezarri ahal izan behar dira eta, bidezkoa denean, seme-alaben tutoretza, kuratela, zaintza eta adopzioaren erakunde juridikoen bitartez. Estatu Kideak ahalegindu beharko lirateke, beren legeen arabera, bigurasoek, beren egoera zibila dena dela edo seme-alabekin bizi izan edo ez, seme-alabekiko eskubide eta erantzukizun berberak izan ditzaten.

16. artikulua, 1. lerroaldea,
e) idazatia

21. Seme-alaben haziera eta hezkuntzari loturiko emakumearen beharrikizunek eragina dute hezkuntzara, enplegu-
ra eta bere garapen pertsonalari datxekzion beste jarduera batzuetara iristeko duen eskubidean, lan-zama bidegabeari ezartzeaz gainera. Seme-alaben kopuruak eta tartekaldiak antzerako ondorioa dute emakumearen bizitzan, eta eragina dute bere gorputz eta sentipen osasunean nahiz bere seme-alabenean ere. Arrazoi hauengatik, emakumeak badu bere seme-alaben kopurua eta tartekaldia erabakitzearen eskubidea.

22. Txosten batzuetan hertsapen-praktikak azaltzen dira, emakumearentzat ondorio larriak dituztenak, esaterako, haurdunaldi, abortu edo esterilizazio behartuak. Seme-alabarik edukitzearen edo ez edukitzearen erabakiak, hobesgarriro ezkontide edo bizikidearekin kontsulta eginda hartu behar diren arren, ez dira, haatik, ezkontideak, aitak, bizikideak edo gobernuak mugaturik egon behar. Neurri antisorgarri eta fidagarriei buruzko erabaki bat jakinaren gainean hartze-
ko, emakumeek neurri antisorgarriei eta beren erabilerari buruzko informazioa izan behar dute, bai eta sexu hezkuntzara eta familiaren plangintza zerbitzuetara iristea bermaturik eduki ere, Konbentzioaren 10. artikulua h) idazatian xedatzen den bezala.

23. Adostasun zabala dago ernalmenaren borondatezko erregulazioa egiteko neurri egokiez baliatzeko askatasuna dagoenean, familiaren kide guztien osasuna, garapena eta ongizatea hobetzen direlakoan. Gainera, zerbitzu horiek ho-

betu egiten dituzte biztanleriaren bizitza kalitate orokorra eta osasuna, eta demografi hazkundearen borondatezko erregulazioa lagungarri da ingurugiroari eusten eta ekonomi eta gizarte garapen euskorra errealitate egiten.

16. artikulua, 1. lerroaldea,
g) idazatia

24. Familia egonkorra berdinkidetasun, justizia eta bere kideetako bakoitzaren garapen osoaren printzipioetan oinarritzen den familia da. Beraz, senarrak eta emazteak beren lanbide edo zeregina aukeratzeko eskubidea izan behar dute norberaren gaitasun, trebetasun edo helburuen arabera, Konbentzioaren 11. artikulua a) eta c) idazatietan xedatzen den bezala. Gainera, pertsona bakoitzak komunitatearen barruan bere norbanakotasuna eta nortasuna baiezteko izena aukeratzeko eskubidea izan behar du, gizarteko gainetarako kideengandik bereizteko modukoa. Legeak edo ohiturak emakume bat, ezkontza edo ezkontzaren desegitea dela-eta, bere izena aldatzera behartzen dutenean, ukatu egiten zaizkio eskubide horiek.

16. artikulua, 1. lerroaldea,
h) idazatia

25. Artikulu honetan adierazten diren eskubideak bat datoz 15. artikulua 2. lerroaldean adierazten direnekin, hauen osagarri dira eta Estatuari emakumei kontratuak hitzartzeko eta ondasunak administratzeko eskubide berberak aitortu beharra ezartzen diete.

26. Hamabosgarren artikulua 1. lerroaldean, gizonarekiko berdintasuna bermatzen zaio emakumeari legearen aurrean. Emakumearen ondasunen jabetza, administrazio eta erabilerarako eskubidea funtsezkoa da emakumeak finantza independentzia eduki ahal izateko, eta herri askotan berebiziko garrantzia du emakumeak bizibidea lortu, etxe egokia eduki eta bere burua eta bere familia mantendu ahal izateko.

27. Nekazaritzaren erreformarako edo lurra jatorri etniko ezberdineko taldeen artean banatzeko programa bat garatzen ari diren herrietan, axola haundiz errespetatu behar dira emakumearen eskubideak, bere egoera zibila gora-behera, hots, birbanatua den lurretik gizonaren zati berdina edukitzeko eskubideak.

28. Herri gehienetan emakume ezkongee doo dibortziatuen kopuru nabarmena egoten da, bakarrean familia bat mantentzearen beharkizuna izan dezaketenak. Agerikoa denez, ez da oso errealista gizonak soilik bere familiako emakumeak eta umeak mantendu behar dituela eta beharkizun hori zintzotasunez beteko duelako premisan oinarritzen den edozein diskriminazio. Ondorioz, diskriminatzailea da, ezkontza edo ezkontzaz kanpoko harremana deuseztu edo ahaide bat hiltzerakoan, gizonari ondarearen zati handiagoa ematen dion lege edo ohitura oro, eta ondorio larriak izango ditu dibortziatu, bere burua eta bere familia mantendu eta pertsona burujabe legez duintasunez bizitzeko emakumearen gaitasun praktikoaren gainean.

29. Eskubide hauek guztiak emakumearen egoera zibila gora-behera bermatu beharko lirateke.

Ezkontideen jabetza

30. Badira ezkontza edo egitezko harreman batean, edo ezkontza edo harreman hori amaitzen denean, emakumeari gizonaren jabetza-zati berdinerako eskubidea onartzen ez dioten herriak. Herri askok onartzen dute eskubide hori, baina badaiteke emakumearen eskubideaz baliatzeko gaitasun praktikoa lege aurrekariak edo ohiturak mugaturik egotea.

31. Legeak eskubide horiek emakumeari ematen badizkio ere eta auzitegiek aplikatzen badituzte ere, ezkontza bitartean edo dibortzioaren unean emakumearen jabetzakoak diren ondasunak gizonak administratuak izan daitezke. Estatu askotan, are ondasun erkidegoaren araubidea onartzen dutenetan ere, ez dago emakumeari kontsultatu beharrik ezkontzako edo egitezko harremaneko bi kideen jabetzakoak diren ondasunak saldu eta beste era batean besterentzen direnean. Honek mugatu egiten dio emakumeari ondasunaren besterentzea edo salmentaren ondoriozko sarrerak kontrolatzeko gaitasuna.

32. Hainbat herritan, ezkon-jabetza banatzerakoan, garrantzi handiagoa ematen zaie ezkontza bitartean ondareari egindako finantza ekarpenei beste ekarpen batzuei baino, hots, seme-alaben hezkuntzari, ahaide zaharren ardurari eta etxeko lanak egiteari baino handiagoa. Sarritan, finantzazko-

ak ez diren emakumearen ekarpen horiek posible egiten dute senarrak sarrerek lortu eta bere kapitala gehitzea. Garrantzi berdina eman beharko litzaieke finantzazko ekarpenei eta finantzazkoak ez direnei.

33. Herri askotan, ezkontzaren antzerako harreman baten bitartean metaturiko ondasunek ez dute ezkontza bitartean eskuratutako ondasunen lege tratu berdina. Beti, harremana amaitzen denean, emakumeak gizonak baino askoz ere zati txikiagoa jasotzen du. Emakume ezkondu edo ezkongeak, seme-alabadun edo seme-alabarik gabeak, era hone-tan diskriminatzen dituzten jabetzari buruzko legeak eta ohi-turak indargabetu eta galarazi behar dira.

Oinordetzak

34. Estatu Kideen txostenetan, emakumearen egoerari daragioten oinordetza-eskubideei dagozkien legezko edo ohiturazko xedapenei buruzko iruzkinak sartu beharko lirate-ke, Konbentzioan eta Nazio Batuen Ekonomi eta Gizarte Kontseiluaren 884 (XXXIV) D erabakian xedatzen den bezala. Honetan, Estatuei gomendatzen zitzaaien gizon eta emaku-meen oinordetza-eskubideen berdintasuna bermatzeko be-harrezko neurriak hartzea, eta batzuek eta besteek, kausa-tzailearekiko ahaidetasun gradu beraren barruan, hereden-tzian zati berdina eta oinordetza-hurrenkeran lerrun bera izan behar dutela xedatzen zuen.

Xedapen horrek ez du aplikazio orokorrik izan.

35. Herri askotan, oinordetza eta ondasunen gaietako legeriak eta praktikak diskriminazio larriak sortarazten dituz-te emakumearen kontra. Trataera ezberdintasun honen on-dorioz, emakumeek senarraren edo aitaren ondarearen zati txikiagoa jaso dezakete, hauen heriotza gertatuz gero, gizon alargunek eta semeek baino. Zenbait kasutan, zenduaren on-darearen pentsutan sarrera jakin batzuk jasotzeko eskubide mugatu eta kontrolatu bat baino ez zaio aitortzen emakume-ari. Sarritan, alarguntsaren oinordetza-eskubideek ez dute ezkontza bitartean eskuratutako ondasunen jabetzarekiko berdintasunaren printzipioa isladatzen. Xedapen horiek hautsi egiten dute Konbentzioa eta indargabetu beharko lira-teke.

36. Vienan, 1993ko ekainaren 14tik 25era, egindako Giza Eskubideei buruzko Mundu Konferentzian onartu ziren Vienako Adierazpen eta Ekintza Programan (5), neskatoentzat diskriminatzaile eta kaltegarriak ziren indarreko lege eta araudiak indargabetzera eta ohitura eta praktikak ezabatzerantz zitzaien Estatuei. Hamaseigarren artikulua 2. lerroaldeak eta Umearen Eskubideei buruzko Konbentzioak galarazi egiten diete Estatuei adin nagusitasunera iritsiak ez diren pertsonen arteko ezkontza baimendu edo onartzen. Umearen Eskubideei buruzko Konbentzioaren testuinguruan, «ume irizten zaio 18 urtetik beherako gizaki orori, aplikagarri zaion legearen arabera adin nagusitasunera lehengo iritsia bada salbu». Definizio hau gora-behera, eta Vienako Adierazpenaren xedapenak gogoan izanik, Batzordearen iritziz ezkontzeko gutxienezko adina 18 urtekoa izan behar da, bai gizonarentzat bai emakumearentzat. Gizona eta emakumea ezkontzen direnean, beharkizun garrantzitsuak hartzen dituzte beren gain. Ondorioz, ez litzateke heldutasun eta jarduteko gaitasun osoetara iritsi baino lehen ezkontza permititu beharko. Osasunaren Munduko Erakundearen esanetan, adingabeak, bereziki neskatoak, ezkondu eta seme-alabarik dutenean, beren osasunak eragin kaltegarriak jasan ditzake eta beren hezkuntza oztopaturik gertatzen da. Horren ondorioz, mugaturik geratzen da beren ekonomi autonomia.

37. Honek emakumeari pertsonalki eragin ez ezik, bere gaitasunen garapena eta independentzia mugatu eta enplegurako iristea murriztu ere egiten du, bere familiari eta bere komunitateari eragin kaltegarriak sortzen dizkiela.

38. Herri batzuetan ezkontzeko adin ezberdinak ezarzen zaizkie gizonari eta emakumeei. Xedapen horiek, oker, emakumearen adimen garapenaren erritmoa gizonarenaz bestelakoa dela, edo, ezkontzen denean, bere gurputz eta adimen garapenaren aldiak garrantzirik ez duela suposatzen dutenez gero, xedapen horiek indargabetu beharko lirateke. Beste herri batzuetan, neskatoen ezkontitzak edo, beren ize-nean, familiarrek hartutako konpromezuak onartzen dira. Neurri horiek, Konbentzioaren aurka egoteaz gainera, hautsi egiten dute emakumeak ezkontidea askatasunez aukeratzeko duen eskubidea.

39. Estatu Kideek ezkontza guztien inskribapena ere eskatu behar dute, zibilena nahiz erlijio ohitura edo legeei atxikiz egindakoena. Era horretan, Estatua Konbentzioa bete-

razteaz arduratu ahal izango da eta ezkontideen arteko berdintasuna, ezkontzeko gutxienezko adina, bigamia edo poligamiaren debekua eta seme-alaben eskubideen babesa ezarri ere.

Gomendioak

Emakumearen kontrako indarkeria

40. Emakumeak famili bizitzan duen lekua aztertzerakotan, Batzordeak azpimarratu egin nahi du emakumearen kontrako indarkeriari buruzko 19. gomendio orokorraren xedapenak (11. bilkuraldia) (6) garrantzi haundikoak direla emakumeak bere eskubideak eta askatasunak gizonarekiko berdintasun baldintzetan erabili ahal izan ditzan. Gomendio orokor hori aplikatzera estutzen zaie Estatu Kideei, emakumeek, bizitza publikoan zein familia barrukoan, bere sexua dela-eta indarkeriarik jasan behar ez dezaten, indarkeria horrek beren gizabanako-eskubide eta astasunak era larrian kentzen baitizkie.

Erreserbak

41. Batzordeak larriturik ikusi du 16. artikuluari, bere osoan edo zati batean, erreserbak agertu dizkioten Estatu Kideen kopurua, bereziki 2. artikuluari ere erreserba agertu diotenean, erreserba honen alde, artikulua hau betetzea familiari buruzko ikuspegi arrunt baten aurka egon daitekeela, herriko kultur edo erlijio sinismentan edo erakunde ekonomiko edo politikoetan oinarritutako ikuspegi baten aurka, adierazi dutelarik.

42. Herri hauetarik askok familiaren patriarka-egitura sinesteari eusten diote, aita, senarra edo semea egoera hobean jartzen dituen egitura. Hainbat herritan, siniskera fundamentalistek edo punttako beste siniskera batzuek, edo ekonomi eskasiak, antzinako balore eta tradizioetara itzultzea bultzatu dute eta, ondorioz, emakumeak familian duen lekuak txarrera jo du nabarmenki. Beste batzuetan, berriz, gizarte moderno batek, bere ekonomi aurrerapenerako eta komunitate osoaren onerako, heldu guztien partaidetza, beren sexua gora-behera berdintasun baldintzetan, behar duela onartzen da eta tabu eta ideia atzerakoi edo punttako hauek arian-arian gogogabetu dira.

43. Bi eta hirugarren eta, bereziki, 24. artikuluen arabera, Batzordeak eskatu egiten die Estatu Kide guztiei etapa berri batera apurka-apurka aurrera egitea eta, emakumearen etxeko ezberdintasunaren iritziak etsi-etsian gogogabetuz, herri bakoitzak bere erreserbak, bereziki Konbentzioaren 9, 15 eta 16. artikuluekikoak, atzera ken ditzala.

44. Estatu Kideek etsi-etsian gogogabetu behar dute legeek, erlijio zuzenbideak, pribatuak edo ohiturazko zuzenbideak baieztatu duten gizon eta emakumearen arteko edozein ezberdintasun iritzi, eta erreserbak, 16. artikuluekikoak bereziki, atzera ken daitezen etapa baterantz aurrera egin.

45. Batzordeak, hasierako txostenen eta geroko azterketa oinarri, Konbentzioko Estatu Kideetarik batzuetan, erreserabarik gabe berretsi edo onartua zutenetan, lege batzuk, familiari buruzkoak bereziki, Konbentzioaren xedapenei egiaz atxikitzen ez zitzaizkiela ikusi zuen.

46. Estatu horietako legeek, emakumearentzat diskriminatzaileak diren arau, ohitura eta gizarte eta kultur aurriritzietan oinarrituriko neurri asko dituzte oraindik. Aipatu artikuluekiko egoera berezi horren ondorioz, Batzordeak eragozpenak aurkitzen ditu emakumeak Estatu horietan duen egoera ebaluatu eta ulertzeko.

47. Batzordeak, bereziki Konbentzioaren 1 eta 2. artikuluetan oinarriturik, eskatu egiten die Estatu Kide horiei beharrezko ahaleginak egin ditzatela arazo horiei buruzko egiteko egoera aztertzeko, eta oraindik emakumearen kontrako xedapen diskriminatzaileak dituzten euren nazioko legeetan beharrezko aldakuntzak sar ditzatela.

Txostenak

48. Gomendio orokor honetan ageri diren iruzkinen laguntzaz, Estatu Kideek beren txostenetan honako hau egin behar dute:

a) Herriak, Konbentzioarekiko erreserba guztiak, bereziki 16. artikuluekikoak, kentzeko aurrerapenetan lortua duen etapa adieraztea.

b) Bere legeak 9, 15 eta 16. artikuluen printzipioekin bat ote datozen adieraztea eta, erlijio zuzenbide edo pribatuagatik edo ohiturazko zuzenbideagatik, legea edo Konbentzioa betetzeko eragozpenik ote dagoen ere.

Legeria

49. Estatu Kideek legeak aldarrikatu eta betearazi beharko dituzte, Konbentzioari, bereziki 9, 15 eta 16. artikuluei, egokitzeko beharrezkoa izan dadinean.

Konbentzioa betetzeko bultzagarria

50. Gomendio orokor honetan ageri diren iruzkinen laguntzaz, eta 2, 3 eta 24. artikuluetan xedatzen denaren arabera, Estatu Kideek Konbentzioaren printzipioak erabat betetzea bultzatzeko neurriak sartu beharko lituzkete, bereziki erlijio zuzenbidea edo pribatua edo ohiturazko zuzenbidea printzipio horien aurka daudenean.

22. Gomendio orokorra (14. bilkuraldia)

Emakumearen kontrako Diskriminazioa Ezabatzeke Batzordeak,

Ikusiz emakumearen kontrako diskriminazio era guztiak ezabatzeke Konbentzioko Estatu Kideak, Batzar Orokorrak eskatuta, 1995ean bilduko direla Konbentzioaren 20. artikulua zuzentzen den aztertzeke,

Gogoraraziz bere aurreko erabakia, hamargarren bilkuraldian hartutakoa, bere eginkizunaren eraginkortasuna zaindu eta Estatu Kideek aurkezturiko txostenen azterketaren berandutza gehitzea galeraaztera zuzendua,

Gogoraraziz Konbentzioa Estatu Kiderik gehienek berretsia duten giza eskubideei buruzko tresnetako bat dela,

Aintzat hartuta Konbentzioaren artikulua emakumeari, bere eguneroko bizitzan eta gizarte eta Estatuaren esparru guztietan, dagozkion funtsezko giza eskubideei buruz ari direla,

Kezkaturik Batzordearen lan bolumenagatik, berrespen kopuru gorakorren eta metaturik eta aztertzeke zain dauden txostenen ondorioa dena, l. eraskinean agerian jartzen denez,

Kezkaturik, halaber, Estatu Kideen txostenak aurkezten direnetik aztertu arteko aldi luzeagatik, Estatuak txostenak eguneratzeko informazio gehigarria ematea beharrezkoa delarik,

Gogoan izanik Emakumearen kontrako Diskriminazioa Ezabatzeke Batzordea giza eskubideei buruzko itun baten

ondorioz sortu izan eta bere Konbentzioak bilkurak egiteko aldia mugatzen dion organo bakarra dela, eta bere bilkuraldia, II. eraskinean isladatzen denez, giza eskubideei buruzko itunen ondorioz sortuak diren organo guztien artetik, laburrena dela,

Ohartaraziz bilkuraldien iraupenaren mugapena, Konbentzioan agertzen denez, benetako oztopo bilakatu dela Batzordeak, Konbentzioaren arabera, bere eginkizunak eraginkortasunez bete ahal izateko,

1. Gomendatzen du Estatu Kideek begi onez har dezatela Konbentzioaren 20. artikulua zuzentzea, Batzordearen bilkuraldiari dagokionez alegia, urtean bere eginkizunak Konbentzioari atxikiz eraginkortasunez bete ahal izateko behar izan dadin denboraldian bildu ahal izan dadin, murrizketarezik gabe, Batzar Orokorrak ezar ditzanak izan ezik;

2. Gomendatzen du, halaber, Batzar Orokorrak, zuzentze prozesua amaitu bitartean, salbuespenez, Batzordeari baimena eman diezaiola 1996an hiruna astebeteko iraupeneko bi bilkuralditan biltzeko, eta bilkuraldi aurretiko lantaldeen lana egindakoan;

3. Gomendatzen du, gainera, Estatu Kideen bilerak Batzordeko Lehendakartzaren ahozko txostena jaso dezala Batzordeak bere eginkizunak betetzeko aurre egin behar dien zailtasunei buruz;

4. Gomendatzen du Idazkari Nagusiak Estatu Kideen eskura jar dezala, berauen bileran, Batzordearen lan bolumenari buruzko bidezko informazio guztia, bai eta giza eskubideei buruzko itunen ondorioz sortuak diren gainerakoekin alderatzeko informazioa ere.

Oharrak

- (1) Eztabaidarako, ikus bedi V. kapitulua.
- (2) Eztabaidarako, ikus bedi V. kapitulua.
- (3) Eztabaidarako, ikus bedi VI. kapitulua.
- (4) Ikus bedi *Nazio Batuen Hamarrurteko Emakumearentzako Lorpenak: Berdintasuna, Garapena eta Bakea Aztertu eta Ebaluatzen Mundu Konferentziaren Txostena, Nairobi, 1985eko uztailaren 15etik 25ra* (Nazio Batuen Argitalpena, salmenta Zk. S.85.IV.10), I. kap., A. zatia.
- (5) A/KONF. 157/24 (I. Zat.), III. kap.
- (8) Ikus bedi *Batzar Orokorraren Agiri Ofizialak, berrogeita zazpigarren bilkuraldia, 38. Eraskina* (A/47/38), I. kap.

E MAKUMEEN ETA
GIZONEN ARTEKO
BERDINTASUNAREN
KULTURARANTZ
HEZKUNTZAREN BITARTEZ

Atarikoa

Irakaskuntza Arloko Diskriminazioen kontrako Borrokari buruzko Konbentzioa (1960), Emakumearen kontrako Diskriminazio Era guztiak Ezabatzeko Konbentzioa (1979), eta emakumearen aurrerapenerako etorkizuneranzko Estrategiak (Nairobi, 1985) onartu ondoren, nazio eta nazioarteko adierazpen askotan baieztu da emakumearen hezkuntzak politika, gizarte eta ekonomi bizitzarako duen garrantzia. Guztientzako Hezkuntzari buruzko Mundu Konferentziak (1990) dei bat egin zien Estatuko buruei eta nagusiei mailarik altueneko ekimenak har zitzaten hezkuntzaren alde, eta bereziki neskato eta emakumeen hezkuntzaren alde. Rio de Janeiroko Ingurugiro eta Garapenari buruzko Konferentziak (1992) azpimarratu egin zuen emakumeak ingurugiroaren babesean betetzen duen eginkizunaren garrantzia. Biztanleria eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentziak (Kairo, 1994) agerian jarri zuen emakumearen hezkuntzaren, ugalketari dagozkion eskubideen eta demografi hazkundearen kontrolaren artean dagoen koerlazioa. Giza eskubideen arloko hezkuntzarako Nazio Batuen Hamarrurtekoak, 1995eko urtarrilaren 1ean hasi zenak, lehentasuna ematen dio gizon eta emakumeen arteko berdintasunari. Kopenhageko Gizarte Garapenari buruzko Mundu Batzarrak (1995) agerian jarri du berriz ere emakumeei eta neskatoei hezkuntzarako aukerak eman beharra. Testuinguru honetan, Emakumearen kontrako Diskriminazioa Ezabatzeko Batzordeak eta UNESCO erakundeak hezkuntzaren balio unibertsalarekiko fedea baieztzen dute berriro, mundu osoan gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren kultura bat sortzeko bidea den aldetik.

Gaurko egoera

Emakumeak oinarritzko hezkuntzara iristerik izan ez duten mila milioi helduen %60 dira, eta neskatoek oinarritzko irakaskuntzara iristerik izan ez duten bi sexuetako 130 milioi umeen gehiengoa osatzen dute. Ekonomi beharrianek, tradizioaren pisuak eta garaiz aurreko ezkontzek eta haurdunaldiek behartu egiten dituzte neskatoak, gizonezkoak baino gehiago, beren ikasketak uztera lehen irakaskuntza zikloa amaitu baino lehen. Garabidean dauden herrietan, bigarren irakaskuntzan dauden neskatoen portzentaia mutikoena bai-

no txikiagoa da. Eta, are herri garatueta ere, neskatoak argiro urriago dira irakaskuntza teknikoan eta zientifikoan. Goi mailako irakaskuntzari dagokionez, irakaskuntza laburrean batez ere aurkitzen ditugu emakumeak, bai industri herrietan bai garabidean dauden herrietan. Ziklo honetan, eta ikerketan ere, emakumeak ugariago dira gizarte eta letren arloan zientzia eta teknologian baino. Irakaskuntzako lanean gero eta emakume gehiago aritzen diren arren, industri herrietan sarri askotan gehiengoak direla, oso gutxitan betetzen dituzte goi mailako administrazio karguak.

Ez dago baserrialdeetako emakumeentzat sexu bateko eta besteko pertsonen arteko ezberdintasunaren alderdi nabariagorik. Baserrialdeko emakumeek eta neskatoek diskriminazio bikoitza jasaten dute hezkuntza formalaren maila guztietan. Diskriminazio bikoitz honek talde zaurkorrak ikutzen ditu bereziki, esaterako, emakume pobreak, etxeko buroak, ezinduak edo zaharrak, gutxiengo etnikoetako emakumeak, migratzaileak, errefuxiatuak edo lekuz aldatuak, eta punttako diskriminazio egoeretan bizi direnak, indarkeria, joputasun edo prostituzio egoeretan bizi direnak kasu. Emakume talde hauek ez dute, esateko, hezkuntzarik hartzeko batere aukerarik.

Nazioarteko egoerak bereizgarri ditu, gaurregun, mundu mailako krisialdi ekonomiko iraunkorra, herri askori ezarritako doiketa estrukturaleko eta zor itzulketazko politikak, eta lehiakidetasun ekonomikoaren lehentasuna gizarte justiziarri dagozkion arduren kaltetan. Askok dira emakumearentzako aukera berdintasuna bultzatzeko eta emakumearen gaikuntza indartzeko programarik ez duten herriak, edo beharrezko baliabiderik edo borondate politikorik ez dagoelako, edo gizonetzko zuzendutako politikengatik, programa horiek aplikatzen ez dituztenak. Zabal ezaguna da emakumeen partaidetza mailaren eta herrien garapenaren arteko erlazio hertsia. Beraz, gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasuna dugu herri pobreen eta aberatsen arteko diferentziak larriagotzen dituzten faktoreetako bat.

Emakumearen kontrako diskriminazioaren iraunkortasun honen aurrean, ondoriozko giza baliabideen zarrastelkeriarekin, Batzordearen eta UNESCOren iritziz, premiazkoa da nazioarteko komunitateak birbaieztu dezala emakumearen hezkuntzak, funtsezko giza eskubidea den aldetik, betetzen duen eginkizun erabakiorra, eta ekintzarako printzipio argiak eta

ondo zehaztuak har ditzala. Hezkuntza dugu aurretiko eta ezinbesteko baldintza, emakumeek beren herritartasun eskubidea bete-betean eta benetan erabiltzea nahi bada. Guztientzako hezkuntza da demokraziarako, tolerantziarako eta nazioarteko bakerako beharrezko berdintasunaren kultura ezartzeko biderik onena, kultura horren oinarritzako printzipioak direla justizia eta gizaki guztiak libre eta berdin jaiotzen direlako aitormena.

Ekintzarako printzipioak

Hezkuntzarako eskubidea funtsezko giza eskubide bat da, Estatuak emakume guztiei eta gizon guztiei zerbitzu publiko bezala bermatu behar diena

Hezkuntza dugu gizakiaren eskubide alienaezinetako bat. Aurretiazko ezinbesteko baldintzetakoa da emakumeek beren buruarengan konfidantza hartu eta gainerako eskubideetara iristeko aukera eduki ahal izateko, hots: lege aurreko berdintasunera, partaidetza politikora eta boto askatasunera, pentsamolde eta iritzi askatasunera, lanerako eskubidera eta aisiarako eskubidera. Estatuak soilik berma dezake hezkuntzarako eskubideaz benetan gozatzeko behar den epe luzerako ekintza aktiboa.

Bereizteak oso bakanka eraman daiteke berdintasunera. Neskatoek eta emakumeek hezkuntza maila eta era guztietara iristeko aukera izan behar dute mutiko eta gizonekiko berdintasun baldintzetan

Hezkuntza era bereiziak ezartzeko Kultur, famili edo erlijio presioak ezin onartuzkoak dira. Hartu ahal izango dira, haa-tik, behin-behineko neurri bereziak, behar izanez gero, benetako berdintasuna lortzeko eta, horrela, emakumei eta neskatoei aukera berberak emateko. Alabaina, mutiko eta neskatoek, gizon eta emakumeek, oro har, eskolako askatasun eremuan izan behar dituzte harremanak, sexuen arteko berdintasuna ikasi eta praktikatzeko eta irakaskuntza, hezkuntzaren administrazio eta kudeaketaren maila guztietan parte hartzeko aukera berberak izateko.

Oinarritzko irakaskuntza eta funtsezko aritmetikaren ezagupenak ezinbestekoak dira herritar guztien erabakimena bultzatzeko eta, zehazki, neskato eta emakumeen gaitasunak indartzeko

Emakumeen alfabetatzea epe luzerako nazio programak finantzatzuz lortu behar da, beharrian zehatzei erantzun eta haien kezkak kontuan izan ditzaten programak, emakumeen euren partaidetzarekin. Emakumeek denbora mugatua dute ekoizpenean eta ugalketan betetzen dituzten eginkizun ugarientzat. Hezkuntza ez-formalaren programak emakumearentzat, eguneroko bizitzan nahiz bere zereginetan, onuragarriak gerta daitezen moduan asmatu behar dira.

Praktikan jarri behar da emakumeei, haurtzarotik adin heldura arte, hezkuntza iraunkorra eman eta emakumearen bizi-zikloaren fase ezberdinak kontutan hartzen jakin dezan hezkuntza politika bat

Hezkuntza iraunkor honek enplegurako iriste zuzena eman behar die, edozein unetan, eta sistema orokorrean baliokidetasunak edukitzeko aukera ere. Irakaskuntza ez-formalak edo paraleloak, bere era guztietan, oinarritzko, bigarren eta goi-mailako irakaskuntzarako iristea eman behar du, eta, gainera, hezkuntza formalaren balio bera onartu behar zaio, oro har, lan merkatuko ateak irekitzeko orduan. Ekonomi autonomiarik gabe, emakumeek ez dute beren eskubideez bete-betean baliatzerik.

Neskato eta emakume gehiagori zientzi eta teknologi irakaskuntza ez-tradizionalera iristeko aukera eman diezaieten bideak bilatu eta erabili behar dira

Era horretan, zientzi eta teknika aurrerapenez, sexuen arteko berdintasunaren arazoarekin zerikusia duten neurrian, baliatu ez ezik, baizik eta zientzi eta teknika ezagutza sendoak behar dituzten lanbide ezberdinetan aritu ere egin ahal izango dute, esaterako, ikerketa, irakaskuntza, ingeniariaritz, edo karrera teknikoetan, eta gizonen lanbide ibilbideak eurak jarraitu ere.

Sexuen arteko berdintasuna, diskriminaziorik gabea, funtsezkoa da ezagutza oro gertatze eta hezkuntzaren bitartez transmititzerakoan, antolakuntza, egitura eta edukiaren ikuspegitik

Liburuak, programak, irakasleen prestakuntza eta irakas-kuntzako materiala berrikusiak izan behar dira emakumeari buruzko ikerketa programen ekarpenen arabera, bertatik es-tereotipo sexistak kentzeko. Irakaskuntzan egin dadin gizarte ekintza, funtsez, ikasleak, irakasleak, eskolako zuzendariak eta administratzaileak sentiberatu, prestatu eta berdintasu-naren eta aniztasunaren tolerantziaren aldeko baloreen alda-keta prozesura gaineratzea bermatzera zuzenduta egon be-har da. Ekimen horiek familien, komunikabideen eta elkarte-en laguntza izan behar dute, gizarte demokratiko, pluralista eta zuzen bateranzko trantsizioa hastea lortzeko helburuz, gi-zaki ororen funtsezko eskubideen errespetua berma dezan gizarte baterantz, alegia.

Legeria egokiaren ezagutza, osasuna eta ugalketa-rekin zerikusia duten eskubideak emakumearen auto-nomiaren oinarri dira, eta aukera ematen diote, herri-tarra den aldetik, bere eskubideak erabili eta beharki-zunak betetzeko

Emakumearen eskubideei buruzko hezkuntzak aukera ematen diote hari legeria egokia ezagutzeko ez ezik, baizik eta berdintasun formala lortu eta nazioko nahiz nazioarteko legeei heldu ahal izateko tresna praktikoak erabiltzeko ere. Mediki zerbitzuak dohainik jarri behar dira emakume eta neskatoen esku. Familiaren plangintzari eta, sexualitate eta ugalketa funtzioen ikuspegitik, emakumearen osasunari bu-ruzko guztia zerbitzu horietan sarturik egon behar da.

Gizon eta emakumearen arteko berdintasunerako hezkuntza funtsezko bidea da mundu osoan indarke-ria era guztien kontra borrokatzeko

Bake, elkarriketa, berdintasun eta gizaki guztien eta, be-reziki, emakumeen duintasunaren errespetuaren baloreak irakastea dugu familian, bizitza publikoan edo Estatuaren arte-an gertatzen den indarkeriaren kontra eraginkortasunez bo-rrokatzeko bidea.